

artelka

*Trantsizioaren
hausturak*

«Espainiako trantsizioaren helburua ez zen modu abstraktu batean esparru nazional bat indartzea. Kontrara, marko nazional hori bestelako prozesu batek hartzen zuen forma baino ez zen, burgesiarentzat baliagarria zena. Trantsizioaren helburua eta edukia Kapitalaren metaketa gauzatzeko marko mesedegarri bat sortzea zen, prozesu horrek berak soberan zuen diktadura paretik kenduta eta horrekin batera mugimendu iraultzaileei, ordura arte garatu ziren forman, existitzeko baldintzak erauzita»

06

EDITORIALA

Arteka

Trantsizioaren ajeak

10



KOLABORAZIOA

Dani Askunze

Klase-borroka ezker
abertzalearen baitan
70eko hamarkadan

30

KOIUNTURA

Martin Goitiandia

78ko erregimena,
demokrazia konstituzionala
eta bere mugak

36



ELKARRIZKETA

Arteka — Emilio Lopez Adan *Beltza*

«Nazionalismoak gaina hartu zion erabat borroka sozialari»

50



KOLABORAZIOA

Imanol Satrustegi

Barrikada bereko lagunak

Trantsizioaren ajeak

EDITORIALA

Atzera begira jarri gara, Espainiako trantsizio gisa ezagun den horretara. Lehenik eta behin, garai hartan garaitua izan zen proletalgoaren esperientzietatik ikasi beharra azpimarrazteko; bigarrenik, porrotak ahoskabetu zuen proletalgoaren ahotsa aldarrikatzeko. Ohikoa izaten baita, prozesu historiko konplexuetan, garaileak galtzaileen aldarrikapenen ordezkari bilakatzea —eta soilik subsumitze prozesu hori emankorra den heinean bilaka daitezke garaile—, nola eta mamitsu eta oparo izan ziren gertakariak sinplifikatuta, galtzaileen ekarpenak ezabatzeraino. Are gehiago tamaina horretako trantsizio batean non, azaleko begirada batek gauza asko aldatu ez zela babestuagatik ere, uste dena baino gehiago aldatu zen, nahiz eta hainbat hamarkada behar izan diren aldaketa horiek mugimendu iraultzaileen baitan izandako benetako ondorioak modu agerikoenean azaleratzeko.

Esan behar da, atzera begiratzean ere sinplifikaziorako joera nabarmendu ohi dela, batzuetan porrotaren atzetik datorren atsekabearen ondorioz, hasierako momentutik bertatik, antzeman ez bagenuen ere, dena galduta zegoela pentsarazten diguna. Baina, beste batzuetan, egoeraren konplexutasuna alboratzen delako gertatzen da hori, edo gaur egungo begiradak ahazten duelako, hor nonbait,

Ohikoa izaten baita, prozesu historiko konplexuetan, garaileak galtzaileen aldarrikapenen ordezkari bilakatzea —eta soilik subsumitze prozesu hori emankorra den heinean bilaka daitezke garaile—, nola eta mamitsu eta oparo izan ziren gertakariak sinplifikatuta, galtzaileen ekarpenak ezabatzeraino

Jada ez da ezer aurrerakoirik mugimendu interklasistaren estrategia demokratizatzailean, demokraziak irabazi egin duelako. Bukatu dira trantsizio aurreko urteak, baita trantsizioari berehalakoan jarraiki etorri zirenak ere. Baina ez da bukatu, inola ere, trantsizioaren ajea. Oraindik ageri zaigu “78ko erregimenaren” mamuarekin, askok erreskatatu nahi duena, hor aurkitzen baitu, ezinbestean, oinarri anakroniko horietan, bere estrategiaren zilegitasuna

gaur egun arte bizitakoa, agian, ez zela ezinbestean bizi beharrekoa, baina, akaso, hori bizi izan dugulako gaudela hemen gaur egun. Orain arte borrokatu dutenei errespetua da zor zaien gutxienekoa. Baina baita printzipio hau lau haizetara zabaltzea ere: kritikak ez du inola ere gailentasun moralak esan nahi, kritika ezinbestekoa da porrotari zentzu politikoa emateko, hau da, historiatik ikasi eta bera oinarri izanda borrokarik ekiteko.

Izan ere, ezker abertzalea izan zenak, gaur batzuek guztiz sinplifikatu nahi dutena, agortuta egonagatik ere, ezin uka paper historiko garrantzitsua izan duela. Baina paper hori, eta bere balioa, soilik testuinguru historiko zehatz bati lotuta aldarrika daiteke. Eta testuinguru hori agortuta ere, oraindik bere oinarri estrategikoei eutsi nahi dietenak, ez dira inola ere ezereen esentziaren eramaile, dogmarena baizik, mugimendu historiko bati bere balioa aitortu baino, guztiz agortzen dutenak karikaturizazio anakroniko bat tarteko.

Jada ez da ezer aurrerakoirik mugimendu interklasistaren estrategia demokratizatzailean, demokraziak irabazi egin duelako. Bukatu dira trantsizio aurreko urteak, baita trantsizioari berehalakoan jarraiki etorri zirenak ere. Baina ez da bukatu, inola ere, trantsizioaren ajea. Oraindik ageri zaigu “78ko erregimenaren” mamuarekin, askok erreskatatu

nahi duena, hor aurkitzen baitu, ezinbestean, oinarri anakroniko horietan, bere estrategiaren zilegitasuna. Demokraziarik ez bada, diktadura autokratikoak badirau, orduan justifikatuta dago mugimendu nazional interklasistaren estrategia, estatu egitura burgesen demokratizazioa helburu duena.

Tamalez, bere izaera autoritarioa agerian uzten badu ere, hori da, formalki, «demokrazia unibertsala», edo guztien ahotan dagoen demokrazia, burgesiaren masa-aginte forma baino ez dena. Eta printzipio hori ez onartzeak, hau da, bizi dugun burgesiaren diktadura hau demokrazia dela ez aitortzeak, horrek luzatzen du trantsizioaren aroa, zeina jada ez duen burgesia agintariak sostengatzen, baizik eta aurrerakoikerian erortzen den bere frakzio burges txikiak, anakronismo horretan aurkitzen baitu estatu bilakatzeko aukera, baina soilik estatu independentearen forman, soilik nazio zapalduetan aurki baitezake bere programa demokratiko-estatalistari atxikimendua eman diezaiokeen masa zabala. Ez da kasualitatea, beraz, mugimendu demokratiko burgesak Euskal Herrian edota Katalunian aurkitzea bere oinarri sendoena, herri baten askapena zuzenean identifikatzen baita forma estatal burgesarekin, eta hori, hau da, estatu bilakatzeko, soilik demokraziaren benetako egikaritzearekin lotu baitaiteke modu zabal eta simple batean.



Izan ere, trantsizioaren edukia espainiar batasun nazionala betikotzea bazen, demokraziaren ukazioan eta frankismo garaian eratutako elite aristokratikoen mesedean oinarrituta, batasun hori hausteak elite horiekiko konfrontazioa ekarri behar du nahitaez. Baina irakurketa horrek alde batera uzten duena ez da boterea erabiltzen duen figura sozial bat egotea, baizik eta figura horrek hartzen duen forma, zeina, bere begietara, berdina den diktadura zuzen batean edo forma demokratikoaren bitartez gauzatzen den diktadura batean

Bada, atzera begiratzea aurrera begiratzea bezala da. Izan ere, oraindik ere garai hartan katramilatuta gaituzte halako eztabaidek. Ziur aski, trantsizioan bilatu beharko genuke jatorrizko bekatua, gaur fruitu pozoidun bilakatu dena. Garai oparoa izan zen mugimendu iraultzaileen baitan: eztabaida desberdinak, antolakundeen ugaritzea eta posizioen erdibideko argipenak nagusi izan ziren, besteak beste. Baina, korapiloerik emandako ebazpenek, gaur egun oraindik ere ebazpen mugiezin gisa ageri direnak, ondorengo hamarkadetan garatu zen trantsizio luzatua baimendu zuten, guztiz itxi den arte, garai hartako mugimendu politiko aurkarien azkeneko hatsarekin.

Esan nahi dena da, trantsizioak, bere funtzioa bete badu, proletalgoaren menderakuntzaren ikuspegitik, bederen, bere burua hainbat hamarkadaz luzatu duelako izan dela, eta eragina izan duelako bere hasierako urteetan indarrean zeuden mugimenduetan eta haien ondorengo garapenean. Hau da, trantsizioak, une jakin batean antolatu zen trantza gisa ezaguna dena, ez du bere ahalmen osoa garatu hainbat hamarkada igaro arte, eta bere lorpen nagusia izan da aurka zituen mugimendu politikoak bere printzipio eta helburuen baitara antolatzea. Horrek bide iraultzailea ixtea dakar, bide demokratikoaren irekieraren bidez.

Espainiako trantsizioaren helburua ez zen modu abstraktu batean esparru nazional bat indartzea. Kontrara, marko nazional hori bestelako prozesu batek hartzen zuen forma baino ez zen, burgesiarrentzat baliagarria zena. Trantsizioaren helburua eta edukia Kapitalaren metaketa gauzatzeko marko mesedegarri bat sortzea zen, prozesu horrek berak soberan zuen diktadura paretik kenduta eta horrekin batera mugimendu iraultzaileei, ordura arte garatu ziren forman, existitzeko baldintzak erauzita. Beraz, une historiko zehatz horretan, non hurrengo hamarkadetakoa garapena baldintzatuko zen, jokoan zegoena errealtate berrira moldatzeko gaitasuna zen. Gaitasun horrek bermatu behar zuen estrategia iraultzailea, hau da, mugimendu iraultzailearen eraberritzea. Gaur, atzera begirata, esan daiteke orduan, une jakin horretan, hartu zela okerreko bi-

dea, eta horrek azken hamarkadetakoa porrota baldintzatu duela.

Porrot hori ideologikoa eta politikoa izan da. Ideologikoa, proletalgoak posizioak galdu zituelako trantsizioaren testuinguruan emandako eztabaidaren ondoren, eta gaur egun ere berea ez den ideologia baten menpe dagoelako. Politikoa, horren ondorioz garatu den masen antolaketa-moduak berekin ekarri duelako klase-emanzipazioa ukatzea, eta hori maila nazional jakin batean klase herrikoiak deiturikoek egindako askapen demokratikoarekin ordezkatzeari.

Izan ere, trantsizioaren edukia espainiar batasun nazionala betikotzea bazen, demokraziaren ukazioan eta frankismo garaian eraturako elite aristokratikoen mesedean oinarrituta, batasun hori haustek elite horiekiko konfrontazioa ekarri behar du nahitaez. Baina irakurketa horrek alde batera uzten duena ez da boterea erabiltzen duen figura sozial bat egotea, baizik eta figura horrek hartzen duen forma, zeina, bere begietara, berdina den diktadura zuzen batean edo forma demokratikoaren bitartez gauzatzen den diktadura batean. Hori izan zen mugimendu iraultzailea eta erreformista bereizi zituen puntu nodala; hortik aurrera, lehenengoa desegin zen, bere independentzia ideologikoarekin batera alderdi komunistan garatzea ahalbidetuko zuen independentzia politikoa galduz, trantsizioaren ondoren sortzen ari zen demokrazia kapitalistaren testuinguru berriztatuan. /



KOLABORAZIOA

KLASE-BORROKA EZKER ABERTZALEAREN BAITAN 70EKO HAMARKADAN

Testua **Dani Askunze**

*«Iraultzak erdizka egiten
dituztenek beren hilobia zulatu
besterik ez dute egiten»*

SAINT-JUST

Ezker abertzaleak, bere bilakaeran, klase borroka bizia esperimentatu du bere baitan. Testu honetan, goia jo zuen urteetan -1970eko hamarkadaren bueltan- izan zituen joera proletarioen ibilbidea errepasatuko dugu eta jorratutako bide desberdinak eta jasandako porrot historikoa aztertuko ditugu.

Gizarte ororen historia klase-borrokaren historia bada, ezker abertzalearena ez da salbuespena. Hala, periferia kapitalistan zein erdigune inperialistaren bihotzean 1960ko eta 1970eko hamarkadetan mundua astindu zuen ziklo nahasiak Euskal Herrian bere adierazpena izan zuen eta, aldi berean, baita ezker abertzalean ere, bertan sendo errotu zen korrante gisa. Ezker abertzaleaz ari garenean, letra xehez, zentzu zabalean egiten diogu erreferentzia, hasiera batean Euskadi Ta Askatasuna (ETA) siglei lotutako espazio gisa ulertuta, eta gero sigletatik harago, uneko gizarte-aldaketei eragiteko, eta horietaz elikatze-ko gaitasun handia erakusten hasia zen espazio gisa. Horrek dinamismo politiko handia ekarri zuen bere baitan nahiz handik kanpo, garai hartan eratzen eta ideologikoki definitzen ari zen fase batean zegoen eta. Azken alderdi honetara hurbilpen bat egiten saiatuko gara.

Gaia garatzen hasi aurretik, metodoaren eta zenbait kontzepturen azalpena egin beharra dago. Alde batetik, analisi honetatik kanpo geratzen dira klase-antolakunde bihurtzeko borondatea bilakaera estrategiko *estatalistekin* lotu zuten korronteak (ETA-berri, ETA-VI, Zelula Gorriak...). Hori horrela, estrategia independentista mantendu zuten joera proletarioen garapenean jarriko dugu arreta. Analisi honen helburua, hortaz, nazio-mugimenduaren gidaritza orokorra eskuratzeko norgehiagokari erreparatzea baino, zehazki ezker abertzalearen gidaritzarako izandako lehia aztertzea izango da. Bestela esanda, bi klase-osagairen eta beraz, bi klase-interesen arteko borroka –proletalgoa eta burgesia txikia– aztertuko da herri-izaerako mugimendu beraren barruan. Ezker abertzalearen izaera herrikoa diogunean bere oinarri sozial eta militanteari buruz, baina batez ere bere eduki politikoaz –*interklasista*– eta hipotesi estrategikoaz –*etapista*– ari gara.

Bestalde, ez dugu garai hau kasualitatez aukeratu. 1970eko hamarkada aukeratu dugu, zentzu zabalean ulertu-

ta, 68ko testuingurua, zehazki, 1967ko ETArek V. Biltzarraren bigarren zatia- ren ondorengoa hartuta. Ziklo hori 80ko hamarkadara modu lausoago batean sartu zen, trantsizioarekin batera. V. Biltzarra, beraz, konplexutasun handiko ziklo oso baten abiapuntu gisa hartzen dugu, eta erlatibizatu eta ukatu egiten dugu ziklo horren ikuspegi sinplista eta zaharkitua, zeinak defendatzen duen ezker abertzaleak ordura arte izandako zentzu teoriko-politiko-ko garai honetan galdu zuela. Mitifikazio hori oso hedatuta dago, bai ezjakintasunagatik baita interesagatik ere. Aldi berean, jarrera proletarioen porrotaren ondorioz eztabaida horien bizitasuna ahultzen den eta eztabaida horiek *de facto* ixten diren unean amaituko dugu hautatutako garaia.

Azkenik, komeni da gogoratzea garai horretan klase-izaeraren gaia ez zela jada era paralelo batean jorratzen, baizik eta garaiko beste eztabaida klasiko batzuekin gurutzatuta, hala nola nazionalismoa/sozialismoa, aktibismo armatua/masa-borroka, zentralismoan/anarkismoan oinarritutako antolakuntza-ereduak, edo koiunturaren eta borroka-baldintzen balorazio ezberdinen fruitu diren ikuspegi estrategikoekin gurutzatuta. Gauza bera gertatzen da garaiko testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoarekin. Aldez aurretik jakitun gara zehaztasun eta formatu arrazoiak direla medio ezin izango ditugula



Analisi honen helburua, hortaz, nazio-mugimenduaren gidaritza orokorra eskuratzeko norgehiagokari erreparatzea baino, zehazki ezker abertzalearen gidaritzarako izandako lehia aztertzea izango da. Bestela esanda, bi klase-osagairen eta beraz, bi klase-interesen arteko borroka –proletalgoa eta burgesia txikia– aztertuko da herri-izaerako mugimendu beraren barruan



gai horiek guztiak aztertu, nahiz eta jakin badakigun une oro eragina izango dutela. Hori lantzeko, ordea, askotariko materialak aurki daitezke dagoeneko. Klasearen auziari erreparatuko diogu, hautematen batzuetan bestetan baino zailagoa eta ezezagunagoa bada ere; izan ere, determinantea da, eta analisi zehatza merezi du, jakitun izanda zeregin horrek nabarmen gainditzen dituela zenbait zertzelada emango dituen artikulua xume honen aukerak.

V. BILTZARRA ETA LANGILE FRONTEA

Hainbat hamarkada igaro dira ETA-ren V. Biltzarra egin zenetik, eta oraindik ere horrekin bueltaka gabiltza. Ukaezina da biltzar horrek ezker abertzalearen psikologia kolektiboan mito gisa duen pisua. Horrek, aldi berean, ez dio benetako garrantzi politikorik ukatzen —ezta aipatu berri dugun erlatibizatze beharra bera ere—. Biltzarrenaren ebazpenak erakundea ezkererantz hartzen ari zen norabidea azken bururaino eramatea ekarri zuen; Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista gisa definitu zuen bere burua, nazionalismoa eta sozialismoa uztartzeko asmotan, eta ideologikoki *nazionalismo iraultzailea* deritzonaren bidez arrazoitu zuen (era nabarmenean Hirugarren Munduko borrokan erreferentziak dituen); halaber internazionalismo proletarioarekin identifikatu zen.

Ikuspegi horren arabera, estilo maoistan argudiatu zen *oinarrizko* kontraesana burgesiaren eta proletarioaren artekoa bazen ere, kontraesana *nagusia* oligarkiaren eta *herriaren* artekoa zen, herria eskusiboki proletarioak ez diren gizarte-sektoreen multzo gisa —burgesia txikitik hasi eta oligarkikoa ez den burgesia nazionaleraino— ulertuta, eta horiek ere berak zapaldu, eta are, esplotatzen zituela ulertzen zen. Hori dela eta, iraultza sozialista baten aurretik beharrezkoa zen iraultza herrikoi bat gertatzea. Hori hainbat faktoretan oinarrituko zen: kapitalismo monopolistaren nozioan, esperientzia antiko-

lonialen askapen-fronteekin izandako mimetismoan, *de facto* frankismoa bezalako etsai komun baten aurrean topo egite horretan, edo euskal gizartearen burgesia txikiak zuen garrantzi historiko erlatiboaren eta gizarte tradizionalaren krisian, biak ala biak erabakigarriak nazionalismo erradikalaren garapenean.

Izan ere, beste testuinguru batzuetan ohikoa zen oligarkiaren aurkako ikuskera popular hori areagotu egin zen, nazio-zapalkuntza testuinguru batean gertatu zelako. Oligarkia —bertakoa barne— Espainiako Estatuarekin lotzeak eta zapalduta dagoen euskal nazioa herriarekin identifikatzeak lehena atzerritar bihurtuko zuen, eta nazio askapenerako borroka objektiboki iraultzaile. Horregatik, askapen nazional-sozialaren dualismoaren gainditze dialektikoa txanponaren pisua bere aurpegi nazionalen jarritan egin zen, zeinak katalizatzaile gisa jardungo baitzuen. Horrenbestez, *klase-borrokak nazio-askapen borrokaren forma hartu zuen*, eta independentzia nazionala herri-demokraziaren sinonimo bihurtu zen. Hori dela eta, denbora askoan Fronte Nazionala izango zen tresna nagusia.

Halaber, ikuskera interklasista eta etapista hori ontzat emanda ere, zehaztera jotzen dugun momentuan behin eta berriz agertuko da gero eta handiagoa zen elementu proletarioarekiko kontraesana, zeinak interes komunak baitzituen baina ez guztiz berdinak; ez zion euskaldunen arteko klase-borrokari uko egingo eta ez zen klase-multzo horretako gonbidatu bat gehiago izatearekin konformatuko, baizik eta borrokaren osotasunaren motorra izango zen. Horrela, V. Biltzarrean proletarioa «objektiboki klaserik iraultzaileena eta Euzkadin klaserik jendetsuena» zela azpimarratu zen¹, eta, beraz, klase unibertsal eta prozesu iraultzailearen bermatzailetzat hartu zen. Agindu hori garatzea izango zen proletarioen borrokaren ardatza.

Ideologia argitzearekin batera, biltzarrenaren ebazpenetan funtsezko bes-





J. Uriarte, Egin funtsa



Keystone funtsa



ZUTIK-Askatasuna ala Hil,
ETA V.aren kanpo aldizkaria



GATAZKA, Belgikan erbesteratutako ETA
V.eko kideek argitaraturiko aldizkaria,
ildo nazionalista iraultzailekoa

FOk lehen mailako funtzio politiko bat bereganatu zuen: «Euskal nazio-mugimenduan klase- zuzendaritza bermatzea»

te bi elementu zeuden: estrategikoa eta antolakuntzakoa². Alde batetik, estrategikoki matxinada berresten zuten, akzio-erreakzio-akzio espiralaren inguruko erreferentzia argeliarrak zituena, eta horretaz gain, hori denbora gutxian praktikan jartzen zuena. Bestetik, berriz, antolakuntza frontista legoke, Truong Chinh vietnamdarraren lau fronteetan oinarritua: politikoa, militarra, kulturala eta ekonomikoa.

Hala ere, laugarren fronte horrek laster izango zituen aldaketak. Fronte Ekonomikoak, pentsatuta zegoen bezala, askapen gerra bati eusteko eta irabazteko behar den azpiegitura ekonomikoaren antolakuntzari erantzuten zion. Aldi berean gertatu ziren, batetik, ulerkera horren eraginkortasun eza Euskal Herriko testuinguruan eta, bestetik, proletarizazio prozesu esanguratsu bat –bertakoena zein etorkinena–, eta, ondorioz, langile-mugimendu berri baten hazkundea gertatu zen. Langile-mugimenduen borrokek eragina izan zuen ETAn, eta hori dela eta, erakundeak ezkerrean zuzendutako jantzia eman zuen, eta hala, begi bistan utzi zuen langile-klasearen ahalmen politikoa. Honen ondorioz, Fronte Ekonomikoa zeritzona Langile Frontea (FO, gaztelaniazko sigletatik) bihurtu zen, eta bertako militanteek garai hartako Langile Komisoen dinamikan parte hartu zuten.

Dena den, FOren garrantzi politikoak nabarmen gaititu zituen borroka sindikal soila eta eremu horretako proselitismoa, zeinak nahiko mugatuta egon ziren uneoro. Horrela, FOk lehen

mailako funtzio politiko bat bereganatu zuen: «Euskal nazio-mugimenduan klase- zuzendaritza bermatzea»³. Gainera, onartu zuen «Fronte Nazionale» proletalgoak baino ezin zuela zuzendu eta proletalgoak bakarrik eskaini zitzaizkela aukera politikoak, Askapen Nazionalerako borrokarako benetako irtenbideak»⁴. Horrela, ETAk bere izaera herrikoa berretsi zuen, sektore proletarioak nor bere profila hartzen ari ziren aldi berean. Hau da, iraultza herrikoa defendatzen zen, bai, baina klase-zuzendaritza baten bitartez gauzatua.

Dena den, prozesu hori zerbait lineala izatetik oso urrun dago. 1970ean Itsasun VI. Biltzarra egin zenean, ETA-VI eta ETA-V taldeen arteko zatiketaren eta Zelula Gorrien dimisioaren ondorioz, erakundearen historiako garairik konplexuena hasi zen hurrengo bi urteetan, hala erakusten dute hartutako erabakietan eta militanteetan izandako gorabeherak. Ez da nire asmoa zatiketaren problematika osoan eta haren xehetasunetan sartzea, eta, horretarako, dagoeneko badago materiala eskuragarri. Beraz, V. Biltzarraren koordinatuetan mantendu zirenen eta, bereziki, horien ezkerreko hegalean egon zirenen arrastoari helduko diot.

V. BILTZARREKO TESIEI BERRIRO HELDUZ ETA HORIEK GARATUZ

Aipatu dudan moduan, zatiketaren ondorengo garaian nahasmena nagusitu zen, eta fakzio bakoitzaren bilakaerak oso motel gertatu ziren. Izan ere, ETA-VI.ak ez zuen egun batetik bestera estrategia estatalista garbirik planteatu –eta bere zuzendaritza ez zitzaion oraindik trotskismoari atxikiko–, eta ETA-V.ak ere ez zituen erabat bere egingo V. Biltzarreko tesiak, eta horien eskuinaldean kokatu zen hasiera batean. Hala ere, edozein aldetan kokatuta egonagatik, beren kasa aurreko biltzarretik gorpuzten ari ziren tesiak garatuko dituzten zenbait pertsona topa ditzakegu garai honetan.

Horrela, ETA-V.ak, bere burua ETA-VI.aren *espainolismoaren* ukatzailatzat zuenak, areagotu egin zuen antiespainolismo hori eta bere posizioak eskuineratu zituen, eta horretarako, erakundeaz kanpoko sektoreekin aliantzak sortzera ere iritsi zen. *Askatasuna ala hil* izenez ezagutzen den etapa da, izen horixe baitzuen haren *Zutik* argitalpenaren azpititulua. Bien bitartean, Belgikan erbesteratutako militanteen gutxiengo bat, Federico Krutwigek lagunduta, ildo nazionalista iraultzaile eta internazionalistara itzuli zen. Horien artean, Emilio Lopez Adan *Beltza* nabarmendu zen, eta *Gatazka* argitalpenari ekin zion. Fronte Nazionale «parte hartzen duten klaseen arteko batasunerako eta borrokarako gune» gisa planteatu zuten, baina horrek «ez du Komunisten borroka espezifiko berran behera uztea esan nahi». Gauzak horrela, «euskal proletalgoa ildo politikoaren muga» gaititzen ari zela ulertu zuten, eta «alderdi hori sortzea egungo arazoa» zela⁵. Era berean, zioten «Langileen Alderdi independente baten existentzia galaraziko balitz, fronte horrek burgesia txikiaren tresna bilakatzeko izango lukeen arriskuaz» jabetuko zirela, eta horrek «guztiak organo politiko bakarraren menpe egotea» exijituko zuela. Gainera, proletalgoaren gidari papera «areagotu» egin behar zela, eta horrek, praktikan, «euskal alderdi sozialistarekiko autonomia den langile alderdi bat behar dela begi-bistan uzten zuela» argudiatu zuten⁶.

Hala ere, dokumentu horiek eragin oso mugatua izan zuten, eta erakundearen zati txiki bat baino ez zuten ordezkatu. Egiaz ezagun bilakatu zena Burgosko Prozesu entzutetsuan heriotza-zigorrengatik militarki epaitzen ari ziren presoek sinatutako *Dokumentua* izan zen. Hasiera batean, ETA-VI.aren zuzendaritzari bidalitako gutun gisa planteatu zen. Gutun horrekin, haren alde lerratzen ziren –bertan gertatzen ari zen eboluzioaz ezer jakin gabe–, eta

gogor kritikatzan zituzten *ETA-V.aren manifestua* sinatu zutenak. Hala ere, haren edukia garrantziak, V. Biltzarreko tesiak ezkererantz garatzera zertorrenak, puskaz gainditzen zuen garai hartan zegoen antolaketa-polemika. Horren adibide da ETA-V.ak berak ofizialki bere egin eta gero *Zutik* buletinean argitaratu izana. Bere hedadura eta sakontasunagatik, merezi du aparte aztertzea. Langile Frontea ezaugarritzen zuten «Euskal Langileen Alderdia izango denaren lehen enbrioi (ETA ezinbestean bihurtu beharko zena)» gisa, eta V. Biltzarreko erabakiak «monolitikotzat eta amaitutzat» hartzearen aurka agertu ziren, modu horretan «horien beharrezko garapena gutxiesten» zelakoan⁷. Beranduago Zalbidek, Onaindiak eta Uriartek sinatutako ETA-VI.arekin kritikoa den beste dokumentu batean, «aurrez proletalgoaren batasuna borroka errealetik kanpo» lortzeko aukera ukatu zen⁸, eta iraultza herrikoia garapenak berak langile erakunde independentea argitu lukeela argudiatu zen.

Gatazka taldearen komunismo heterodoxoa, gero eta kutsu libertarioagoarekin, eta Burgosko presoan ageriko marxismo-leninismoa bide paraleloak ziren, eta funtsezko puntu bat jarri zuten mahai gainean: zuzendaritza proletarioaren auzia, hau da, bere independentziarena, Alderdiaren auzia izatera igaro zen. Eta, bereziki bigarren kasuan, erakundeak formalki bere egin zituen planteamendu horiek. Bien bitartean, bere krisia gainditzen joan zen Alderdia, V. Biltzarren zilegitasun historikoa berreskuratuz, kritikak bere eginez, Fronte Nazionalaren saiakerak alde batera utziz, militanteak batuz eta batez ere aktibismo armatuari berrekinenez. Horren ondorioz, ETA-V moduan ezagutzen zenari laster deitu zioten, besterik gabe, ETA.

Erakundeak bere jarrerak formalki erabat ezkererantz biratzen zituen garaiaz ari gara. Horrela, 1972ko bere oinarri ideologiko *minimoek* (sic) hau esaten dute: «hain zuzen ere proletalgoa eta abangoardiak dira burgesia

txikiari askapen nazionalaren borroka-
ren zuzendaritza jabetzen utzi behar
ez diotenak, horiek prozesu iraultzaile
bertan behera utziko luketelako,
eta langile-iraultza erreformismo
burges txiki bilakatu»⁹. Baina, ba-
tez ere, kontraesan handiko garaia
izan zen, non aldi bertsuan gertatu
ziren Zabalaen bahiketa¹⁰ —enpre-
saburu euskalduna eta euskaltzaile—
eta EGI-Batasunako ehunka militante
sartu izana. EGI-Batasuna EAJren disidentzia
zen, eta denbora zeraman bere aparatua
ETArri eskaintzen.

Horrela iristen gara 1973an Hazparraren izan zen VI. Biltzar-
rera, eta hori bai, formalki onartu
zuen ETA-V.ak. Ondorioetan honakoa
baieztatu zen: «ETAK langile-klasearen
abangoardia izatera iritsi nahi du, eta,
horren bidez, herri osoaren abangoardia»¹¹.
Biltzar horretan, bestalde, gaur egunetik
begiratuta interes berezia duen baina
garai hartan nahiko oharkabea pasatu
zen testu bat onartuko zen: *Por qué
estamos por un Estado Socialista Vasco
(Zergatik gauden Euskal Estatu Sozialista
baten alde)*. Bertan, borroka «klase
ikuspegi iraultzaile batekin lotzen da,
ikuspegi kontzienteenetik eta iraultzaile-
enetik: *ikuspegi komunistatik*»¹². Antza
denez, Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*
gaztearen lana izan zen hori.

Orain arte erakundearen ezkerrean
dauden erreferentzia batzuk ezagutarazi
ditugun arren, ezinbestekoa da beren
paperetik harago duten benetako

SUGARRA, LAIA
alderdiaren aldizkaria



**Ba al zegoen benetan hegemonia
proletariorik erakundearen barruan?
Erakunde komunista bati buruz hitz
egin al daiteke? Ondoren izan zuen
garapena ikusita, ezezkoa litzateke
galdera horien erantzuna**



garrantzia erlatibizatzea. Zer ondorio praktiko izan zituen horrek guztiak? Ba al zegoen benetan hegemonia proletario-rik erakundearen barruan? Erakunde komunista bati buruz hitz egin al daiteke? Ondoren izan zuen garapena ikusita, ezezkoa litzateke galdera horien erantzuna. Garai honen ezaugarri nagusiak prozesu kontraesankorrek eta, zalantzarik gabe, nahasmen ideologikoa dira. Agintari militarrek Erakundearen definizio sozialistaren erradikalizazioa edo guxtiengo batzuen zehaztapen teorikoak onartu zituzten—teoriarekiko interes gutxi eta mesfidantza zuten—, betiere praktika armatua oztopatzen eta nazionalismoa ukatzen ez bazuten. Horiek, ordea, ez zituen gehiengoak onartuko, eta ez zuten aplikazio praktikorik izango. ETak definitze sozialista anbigua — modu kalkulatu batean— zuen erakunde herrikoia izaten eta proletarioa izan nahi zuela baieztatzen jarraituko zuen. Ordea, horrelako erakunde bat bihurtzeko prozesua oztopoz beteta zegoen, eta ez zen inoiz gertatu. Are gehiago, hori izan zen haustura berriak eragin zituen arrazoietakoa bat, eta bide berriak ireki zizkion Alderdiaren auziari ETA sigletatik harago.

LANGILE FRONTETIK LAIARA

Behin 1974ra iritsita, frankismoaren amaieraren hasiera ekarriko zuen masa-mugimenduaren gorakadak jarrera desberdinak sortu zituen ETaren barruan. Baina FO jarduera armatuaren mende jartzen zuten planteamendu estrategiko eta antolatzaileekiko erreakzioetik harago, sakoneko arazo politiko bat areagotu zen: erakundearen klase-

-izaeraren auzia bera.

Foko militanteen zati handi batek ETAn «burges-txikiaren eraginek irabazi» zutela ikusten zuen, eta galdutzat jotzen zuen ETA «euskal langile alderdi komunista eta abertzale» bilakatzea. Izan ere, «ETA barruko indar korrelazioa kontuan hartuta, antolakunde osoa zentzu horretan aldatzea ezinezkoa» zirudiela zioten¹³. Urte hartan bertan Domintxainen egindako biltzar batean LAIA, *Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia*, sortu zen, eta Gipuzkoako Foko militanteen nukleoari Fronte Kulturalako, Fronte Militarreko edo *Gatazka* taldeko beste batzuk gehitu zitzaizkion. LAIA ETaren barruan arrazoi ideologikoengatik sortutako azken zatiketaren emaitza izan zen, hain zuzen independentisten arteko zatiketarena, non komunistek erakunde-
dea uztea erabaki zuten, erakundearen barruan eragiteko gai ez zirela ikusita. Bere sorreraren helburua «Euskadiko proletargoaren interesen alde borroka egitea» izan zen, bertan hutsune nabarmena zegoela iritzita¹⁴. Zentzu horretan aitzindari izan ziren, lehen mailako euskal erreferente komunista.

Hala ere, LAIAK hasieratik izan ziotuen egitura arazoak. Horietako bat Gipuzkoako eskualde batzuetan soilik —Debabarrena, Urola, Goierri— kokatzeak zekarren antolakuntza-prekaritatea zen. Beste arazo bat zen barne-koherentzia mugatua zuela, haren militantiaren heterogeneotasun ideologikoaren ondorio zuzen gisa. Horrek laster aztertuko ditugun haustura gehiago ekarri zizkion. Baina denon artean garrantzitsuen ETArekin berarekin zuen harreman sinbolikoa

LAIA ez zen ETaren luzapen gisa sortuko, harekiko haustura gisa baizik. [...]. Zapuztutako aliantzek eta ezker abertzalearen bilakaerak berak gero eta espazio politiko txikiagoa utzi zion, bere behin betiko krisira arte. Laburbilduz, LAIA langileen alderdi txiki bat izan zen, handinahia izanagatik ere, *Alderdia* izatetik urrun gelditu zena

zen. Garai hartan ETAk sortuta edo hauspotuta jaio ziren ezker abertzaleko beste erakunde politiko batzuk ez bezala, LAIA ez zen ETArekin luzapen gisa sortuko, harekiko haustura gisa baizik. Horrek LAIARI ospea kendu zion eta bere berezko indar urrietara mugatu zuen. Hori sektore proletarioek jaiotzaz duten benetako ahuleziaren isla besterik ez zen. Hala, zapuztutako aliantzek eta ezker abertzalearen bila-kaerak berak gero eta espazio politiko txikiagoa utzi zion, bere behin betiko krisira arte. Laburbilduz, LAIA langileen alderdi txiki bat izan zen, handinahia izanagatik ere, *Alderdia* izatetik urrun gelditu zena.

MILIEK ETA POLIMILIEK ARTEKO BATASUN ZAPUZTUA

LAIA zatitu eta gutxira, antolakuntzari eta estrategiari zegozkien plan-teamendu ezberdinek beste haustura bat eragin zuten erakundearen baitan; kausa horien artean ez zen, printzipioz, arrazoi ideologikorik egon. Gauzak horrela, Txomin Iturbe eta Jose Miguel Beñaran *Argala* —*rara avis* bat *milien* artean, zeinaren estrategia izango zen gerora— buru zituen Fronte Militarren zati bat banatu egingo zen 1974an, eta ETA militarra sortu zuen Erakundearen zati handiena ETA politiko-militar moduan ezagutzera pasatu zen.

Bere sorrerako *Agiria*-n¹⁵, ETA militarrek baztertu egin zituen balizko matxinada bat eta antolakuntza frontista; demokrazia burguesaren etorrera aurreratu zuen eta minimo-estrategia bat planteatu zuen, non borroka armatua izango zen «burgesiak benetan asimilatu ezingo duen elementu bakarra». «Taldea eta pertsonalitateen multzo heterogeneo bat» zegoela aitortu zuen, «Euskadi bateratuaren erabateko independentzia eta oraindik ondo definitu gabeko sozialismoa aldarrikatzen» zituena, «identitate ideologikoak» baino gehiago «metodoekiko eta estrategiekiko afinitateak» lotuta egongo zena, beti ere «sozial-humanista eta marxista izanda identifikatutako bi ildo nagusiak». Erakunde militarra zenez, ha-



ETA militarren agiria, 1974ko azaroa

siera batean ez zuen politika zibilean esku hartuko, eta ezker abertzalearen eremu osoan fronte popular independentista bat eratzeari begira gertatzen ziren autoantolakuntza-saiakerak babestera mugatu zen. Laster aldarrikatu zuen, ordea, «langile-klaseko alderdi baten beharra»; izan ere, «fronte antioligarkikoaren baitan herri-burgesiako eta langile-klaseko indarrek» parte hartzen bazuten, «bi klaseetako batek borrokaren gidaritzaz» eraman beharko zuela zioten¹⁶.

Nahiz eta hasierako irizpideak desberdinak izan, ETA (pm) bere antolakuntza-eredua egokitzen joan zen, eta pixkanaka borroka armatuen eta masa-borroken arteko banaketari buruzko *milien* ulerkerara hurbildu zen. Hori, *erdibitze* (gaztelaniaz, *desdoblamiento*; frantsesez, *dédoublement*) kontzeptuaren eta alderdi iraultzaile baten sorreraren bidez formulatu zuen desgertu berria zen Perturren testamentu politiko moduan geratuko zen *Otsagabia* ponentzia¹⁷ ezagunean. Testuinguru honetan, 1976ko ETA politiko-militarren VII. Biltzarrera helduko gara. Han izan zen *milien* eta *polimilien* arteko hurbiltasunik handieneko unea, eta ETA militarrek klase-alderdi baten sorreraren alde sekula izango duen ja-



Une batez gertakari posibletzat jo zen ETA politiko-militarrak eta ETA militarrek bat egitea eta ezker abertzalea klase-alderdi iraultzaile baten zuzendaritzapean bateratzea



Punto y Hora de Euskal Herria, 147 (1979)



rrera argiena hartu zuen, *polimilieta*ko Komando Berezien fakzioaren kezkarako, joko kanpo gelditu baitziren. Hain zuzen, Txomin eta Argala bilerara gonbidatu zituzten, eta ekarpenak egin zituzten¹⁸. Era berean, biltzar horren ondorioak argitaratu eta txalotu egin ziren adar militarren *Zutik* argitalpean bertan¹⁹. Honenbestez, gertakari posibletzat jo zen bi ETA horiek bat egitea eta ezker abertzalea klase-alderdi iraultzaile baten zuzendaritza pean bateratzea.

Hala ere, hurrengo urtean bertan azaleratu ziren hainbeste desiratutako batasunak ekarritako arazoak²⁰. ETA politiko-militarren zuzendaritzaren eta Komando Berezien arteko barne gatazkak bien banaketa ekarri zuen, eta bigarrenak lehenengoei –dagoneko kontraktotasuna adierazia zioten *Otsagabia* ponentziari– Estatuarekin

zituena negoziazioengatik traizioa eta likidazionismoa leporatu zizkieten. Aldi berean, KASen (Koordinadora Abertzale Sozialista) parte hartzen zuten indarren arteko akordioa martxan egon arren, *polimiliek* hauteskundeetan baldintzarik gabe parte hartzearen alde egindako apustuak erabat hautsi zuen Koordinadoraren batasuna. Egia esan, alde handiak zeuden *milien* eta *polimilien* artean, bai borroka armatuaren ulkerkerari dagokionez –erasokoa eta abangoardiakoa lehenengoentzat, disuasiokoa eta atzeguardiakoa bigarrenentzat–, bai Erreformaren instituzio berrien aurkako estrategiari dagokionez –*miliek* horiek ukatzea eta, asko jota, baldintzatutako parte-hartzea planteatzen zuten, eta *polimiliek*, aldiz, horiek eskaintzen zituzten aukera guztiak aprobetxatu nahi zituzten–, baita KAS ulertzeko zuten moduari dagokio-

nez ere. Horren ondorioz, ezker abertzalearen batasuna zapuztu zen, eta bi eremu finkatu ziren ETArek adar baikoitzaren inguruan. Paradoxikoki, une horretan elkarrengandik gero eta hurbilago zeuden *miliek* eta *bereziek* bat egin zuten 1977an bertan. Aldi berean, ETA (m), berriz ere ETA izen hutsez ezagutzen zena, indartu egin zen politikoki eta militarki, eta alderdiaren aldeko jarri ororengandik urrundu zen.

EIA, LENINISMOTIK SOZIALDEMOKRAZIARA

Behin hona helduta, garrantzitsua da ETA politiko-militarren banaketaren fruituan arreta jartzea, horrek ondoren EIAren, Euskal Iraultzarako Alderdiaren, sorrera ekarri baitzuen 1977an. Izan ere, Alderdia sortzeko hautatutako bide desberdinen artean *polimilienak* izan zuten garapen oparoe-



**Talde politiko-
militarraren noraez
horrek EIAk zentzu
iraultzailean izan
zezakeen balizko
bilakaera ez
ezagutzea ekarri
du. Horrenbestez,
ez zen gehiegizko
komunismoa izan
bidetik atera zuena,
bera ez aplikatu
izana baizik**

na, teoriar behintzat. *Otsagabia* ponentzian alderdi horren sorreraren beharra aitortu bazen ere, oraindik ez zegoen oso zehaztuta, definitze hori erdibitzearen hurrengo fasean gertatu zen, *berrelkartze-fasean* («*reagrupamiento*», dokumentuaren euskarazko bertsioan «*reagrupamendu*» esaten zaio), zeina termino leninista ortodoxo samarretan egin zen. *Arnasa* izan zen bere erreferentziazko dokumentua, eta, bertan, egoera berrirako ekarpen interesgarriak egin ziren ezker abertzalearen esparru teorikoan. Hori guztia Gallartako aurkezpenean banatutako *EIAren agiria*-n osatu zen; bertan, EIA ETako lerro politikoan beti presente egon zen «populismoarekin» apurtzera zetorrela argitu zen. Euskadiko langile alderdi iraultzaile bat sortzera begira lanean ari zen langile-alderdi abertzale moduan jaio zen, behingoz klase-izaera

argi eta garbia bere egiteko helburuz²¹.

Arnasa-n, iraultza herrikoiaaren kontzeptua eta haren klase-izaera argitu ziren, eta hura nekazaritza masiboa zuten herrialdeen problematikatik bereizi zen, «non langile eta nekazarien aliantza bilatzen den klase ezberdindu moduan». Gauzak horrela, iraultzan protagonista klase herrikoia izan behar direla esaten zuten; era berean, iraultzak sozialista izan behar zuela azpimarratu zuten, ez langileak zuzentzen duelako bakarrik, klase herrikoien bloke hori ia osoki langileek osatzen zutelako eta proletarizazio-prozesuan zegoelako baizik²². Orduko fasea demokrazia burges gisa sailkatzearekin batera, iraultza egingarri bakarra sozialista zela planteatu zen. Diktaduratik demokrazia formalera igarotzeak koertzio-kontsentsu faktoreen pisua irauli zuen, eta horrek gehiengoak onartu-

tako legezko bideak aprobetxatzera behartu zuen, bere burua «erabat eta eskusiboki» horiei eman gabe, erreformismoak berekin dakartzan arriskuak zainduz eta «herri-botereko» organoak indartuz.

Hala ere, arlo teorikotik praktikora igarota, denek ezagutzen dute sektore horren bilakaera erreformista azkarra, eurokomunismotik gertu zeuden bere erreferentzia hegemonistek porrot egin baitzuten. Izan ere, posibilismoak eta behin betiko instituzionalizazio eta integrazioak ordezkatu zuten Francisco Letamendia *Ortzi outsiders* Euskadiko Ezkerraren izenean entseatu zuen tribuna parlamentarioaren instrumentalizazio leninista, eta horrek *Otsagabia*-ren printzipioak baztertzeari eragin zuen. Ez litzateke bidezkoa izango, ordea, horren erantzule hasierako posizioei eutsi zieten komunistak egitea; bat baino gehiago izan ziren, eta horregatik kanporatuak eta baztertuak izan ziren, hala nola Burgosko Prozesuan epaitutako Gregorio Lopez Irasuegi edo Iñaki Maneros. Azken batean, lehenbiziko EIA izan zuten pisu politikoa zirkunstantziala izan zen, ez baitzegoen beren aldeko indar korrelaziorik. Tesi komunisten onarpena bigarren mailako kontua zen, eta ez zuen erantzun handirik jaso ETaren ospeak erakarrira gerturatu ziren haien partetik. Era berean, dagoeneko Javier Garayalde *Erreka* otsagabiarrak bertan zen eta Onaindia buru zuen zuzendaritzan ere ez zuen onarpen handirik topatu, beste asmo batzuk baitzituzten. Talde politiko-militarraren noraez horrek EIAk zentzu iraultzailean izan zezakeen balizko bilakaera ez ezagutzea ekarri du. Horrenbestez, ez zen gehiegizko komunismoa izan bidetik atera zuena, bera ez aplikatu izana baizik.

AUTONOMIA: ALDERDIAREN AURKAKO KOMUNISMOA

Esparru komunista sakabanatuaren kontrako polo ideologikoan autonomoak kokatu ziren. 1976an, frankismoaren amaierarako irtenbide taktikoa gisa zeuden KAS alternatibaren inguru-

ko jarrera desberdinen ondorioz, LAIAren baitako desberdintasun ideologiko eta estrategikoak azaleratu ziren, eta horrek beste zatiketa bat sortu zuen. LAIA (ez)-ek jarrera autonomo bat garatu zuen haren bilakaeran, eta LAIA (bai)-k, aldiz, alderdiaren kontzeptu abandoardistago bat. Kontzeptu hori aplikatzea ezinezkoa egin zitzaion, ordea; bai besteekin elkartzeko ahaleginetan izandako porrotagatik, baita KAS blokearen beraren ulerkera abangoardista berrien aurrean azaldutako egitura-razko ahultasunagatik eta bateraezintasunagatik ere.

Esan bezala, LAIAren barruan zeuden desadostasunak sakonekoak ziren, Alternatibaren babesaz harago. LAIA (ez) sektorea, gerora jaso zuen LAIAK izenarekin —komunista hitzaren K letrarekin— ezagunagoa, ezker abertzaleko sektore erradikalizatuenaren zen. Bere ildoari jarraikiz, frontepopulismoari eta burgesia txikiarekiko konpromiso orori aurre egin behar izan zion, eta aurre egin zion langile-intrantsigentziari eta klase-autonomiari ere. Hala ere, interklasismoaren ukazio hori ez zetorren burgesia txikiaren gehiegizko pisu politikoa eragindako blokeoaren kritikatik, horren gutxiespenetik baizik. Beraz, irakurketa baikorra izan zen, neurri batean bere bertutea izan arren bere porrotaren kausa izango zena.

Ikuskera horien jatorria ez zen bereziki gogoeta teorikoa, horren erreferentziarik ez baitago ia²³. Jatorri hori garaiko mugimendu asanblearioen eta haien adierazpen erradikalizatuenen eraginean egon daiteke, eta horregatik, erreferentzia libertario edo kontsejista puruak gutxi izan ziren, norberaren esperientziaren eta masak sortzeko bat-batekotasunean jarritako konfiantzaren aldean. Hori dela eta, alderdien aurkako ikuskera hori laster sartuko zen kontraesanean LAIA siglak berak mantentzearekin. Horren ondorioz, 1977an langileen autonomiaren espektro lausoko beste talde batzuekin «konbergentzia asanbleario» batean parte hartu zuten, laster bertan behera geratuko zena. Sektore batzuk ekinga



Autonomoen programa bakarra borroka bera zen, eta, beraz, masen gorakada hark behera egin bezain laster egin zuten behera autonomoek ere, eta haien konpromiso militanteagatik oso garesti ordaintzera ere iritsi ziren



armatura igaro ziren Komando Autonomo Antikapitalisten bitartez, garairik gatazkatsuenean hain zuzen ere. Momentu hartako egoeraren adierazle da autonomoek egoera aurre-matxinadatzat jo izana, frankismoaren amaierako botere burgesaren ezegonkortasuna trantsizioa kolokan jar zezakeen krisi iraultzaile bihur litekeela planteatzearino. Etapismo oro baztertuta, kontua ez zen Erreformaren alternatiba bat planteatzea, sistemaren beraren alternatiba bat planteatzea baizik.

Gauza jakina da ez zela horrelakorik gauzatzerik izan. Haien apustua azkenerraino eramane eta galdu egin zuten. Langile-klasearen zati handienak bizkarra eman zion iraultzari, eta demo-

krazia autoritario berria errepresioan eta alderdi eta sindikatuen lankidetzan oinarritu zen. Autonomoen programa bakarra borroka bera zen, eta, beraz, masen gorakada hark behera egin bezain laster egin zuten behera autonomoek ere, eta haien konpromiso militanteagatik oso garesti ordaintzera ere iritsi ziren. Aldi berean, ENAMek gogor tratatu zituen, sektore gogaikarritzat joz. Paradoxikoki, alderdi guztiekin mesfidatia zen eta errepresioaren aurkako borrokan hezi zen magma sozial asanblearioaren zati handi bat, afektiboki, ETAREN erreferentzia sinbolikoarekin konektatzera pasatu zen. Bere inguruan sendotuko zen etorkizuneko ezker abertzalea, eta honek laster metabolizatuko zituen sektore horiek, Argalaren ulkerera asanbladazaleetatik abiatuta.

ENAM: EZKER ABERTZALE MODERNOA

Esperientzia horiek guztiek porrot egin zuten eta desagertu egin ziren, baina ez zen halakorik gertatu beren ideiekin. Orain artean talde horien esperientzietan zentratu garen arren, orain erreformaren aurkako jarrera armatua eta programa apurtzaile batekin trantsizioan zehar biziraun zuen ezker abertzaleko fakzio bakarra aztertuko dugu. Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduan egituratutako mugimendu horren oinordekotzat jo dezakegu ezker abertzale modernoa, eta politikoki umezurtz gelditu ziren askoren jomuga bihurtu zela esan daiteke.

Baina goazen haren sorrerara. *Milien* eta *polimilien* porrot egindako bateratzearen ondoren, ETA militarrek, Argala buru zuela, atzera egin zuen klase-izaerako alderdiaren aldeko jarrerenetan. Ezker abertzaleko indarren sakabanaketari eta nahasmenari erantzuteko, «oinarri sozial horri guztiari aukera politiko serio eta argiak eman behar zaizkiola, alderdien arteko ezberdintasunak eta xurgatze erreformistak alde batera utzita» azpimarratu zuen²⁴, eta ETA zen hori egiteko moduan egongo zen bakarra, KASen bitartez. Lehen



Jarrera proletarioak behin betiko urtu ziren. Ondoren, *borroka* bakarrik geratu zen, «zeinak batu egiten baitu zalantzarik gabe», *Zutik* 69-n zehaztuta geratu zen bezala



miliek politika zibilean esku hartu ez izanarekin desados, *berezien* hasiera bateko ikuskera politiko-militarrek –erakunde armatuak berak darama zuzendaritza politikoa, inoren mende jarri gabe– norabide horri eutsiko diote azkenean. Sakonean politikariekiko mesfidantza zegoen, baita *alderdiak fusila gidatuz gero* hark borroka armatua- rekin amaitu eta sisteman integratzen bukatuko duen uste militarista ere, EIAren kasuan gertatu zen bezala.

Aurretik, talde abertzale zibilei *Agi- ria*-k 1974an egindako deiari erantzunez, EAS sortu zen lehenengo, EHAS ondoren eta 1977an amaituko zen konbergentzia prozesu sozialista baten ondoren, HASI, Herri Alderdi Sozialista Iraultzailea. Ezker abertzalearen konglomeratu heterogeneoaren ondorioz, sigla horiek nolabaiteko anbigutasun sozialista partekatzen dute, eta haien osaketan ETAtik kanpo kokatzen diren era guztietako elementuak aurki daitezke, nahiz eta ETA militarren il- doko jendea zen entzute gehien zuena. Horren eraginez, *milien* aldeko oinarri sozialak bere zuzendaritza eurokomu- nista kanporatu zuen –EIA erreformistatik gertu zegoena, ondoren EKIA sortuko zuena eta berekin bat egingo zuena–, ETA militarren estrategia interbentzionista berriaren harira.

Argalaren oso gertukoa zen Santi Brouarden zuzendaritzapean, HASIk bere egin zuen liturgia leninista guz- tia, zentralismo demokratikoa barne. Halaber, eredu leninista barrura be- gira aplikatu zuen, ez kanpora begira. Sekula ez zuen abangoardiako alderdi gisa jokatu, funtzio hori KASi egoki- tzen baitzitzaion, eta *globalizazio* la- nak egin zituen han. Hala ere, HASIren aparatu alegalaren pisua garrantzi- tsua zen, bereziki HBn –hori aurrera- go gatazka-iturri bilakatu zen–, baina horrek aurrez ETAn egonkortutako klase *herrikoi* izaerarekiko ez zuen aurrerapauso ideologikorik ekarri, eta politikoki bere menpe zegoen azken instantzian. Behin eredu ortodoxo eta guztiz asanblearioak baztertuta, KASek Gidaritza Bloke gisa zuen ulerkeran,

bere kideek ENAM osoaren benetako abangoardiak, ETAk, esleitzen zien abangoardia kolektiboaren funtzioa be- teko zuten. Jarrera proletarioak behin betiko urtu ziren. Ondoren, *borroka* bakarrik geratu zen, «zeinak batu egi- ten baitu zalantzarik gabe», *Zutik* 69-n zehaztuta geratu zen bezala. Argalaren azken idazkia zen –*milien* argitalpen urrien arduradunarena–, eta bera erail ondoren, ez zen gehiago argitaratu, aro baten amaieraren adierazle.

GARAI BATEN AMAIERA

Zikloaren itxiera porrot historikoa izan zen proletalgo iraultzailearentzat. Hori ez da kasualitatea, eta ez zen ez- ker abertzalearen balizko zuzendari- tzarako barne lehietara mugatu, iraul- tza sozialistarako aukera errealeak maila globalean nola itxi ziren aztertzerai bai- zik. Une horretatik aurrera, Euskal He- rriaren borroka behin betiko bakartuta geratu zen, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Ezker abertzale modernoa, ENAM, porrot horretatik sortu zen. Eta are garrantzitsuagoa dena: ez zen alde- rantziz izan. Proletalgoaren aurreko porrot politikoak ezker abertzalea ar- gitu zuen, eta lehenengoa horretara batu zen menpeko elementu moduan, objektu gisa subjektu gisa baino gehia- go, ukatua izan zitzaion nortasun po- litiko propiorik gabe. Gauzak horrela, hamarkada luzeetako higadura-gerra luze horretan parte hartu zuen, erre- sistentzia heroiko eta tragiko baten parte izanda, bere klase-independen- tziari uko eginga. Baina proletalgoa in- dependentea da, izatekotan. Gaur egun, premisa teoriko hau berretsi dezakegu: klase-independentsia eta interklasis- moa bateraezinak dira. Hala dela era- kutsi du lehenaren ukazio praktikoaren esperientzia etengabeak.

Gaur egun, garai hartan zabaltzen ari zen zikloa ixten ari den honetan, ezker abertzalea izan denaren behin betiko krisi historikoa amaitzen ari den honetan eta horren paradigma politikoa agortzen ari denean, belau- naldi berriak klase-independentsiaren



**Proletalgoaren
aurreko porrot
politikoak ezker
abertzalea
argitu zuen,
eta lehenengoa
horretara batu zen
menpeko elementu
moduan, objektu
gisa subjektu gisa
baino gehiago,
ukatua izan zitzaion
nortasun politiko
propiorik gabe**

bideari berrekiteko prest agertu dira, proletarizazio-prozesu bortitz batek bultzatuta. Paradoxikoki, beharrezkoa izan da egun batean ezker abertzale historikoa izan zen horren gainbehera oportunistak proletalgoa bere proiektu politikotik kanporatzea azken horrek berriz ere burua altxatu dezan. *Borroka* amaitu ostean, desagertu egin dira iraganeko batasun hura ahalbidetu zuten baldintzak. Baina horrek ez du esan nahi atzera begiratu gabe ibiltzen hasi garenik. Honaino ekarri gaituen bide guztia aztertu beharra daukagu. Kasu honetan, ezker abertzale modernoaren historiaurrera jo dugu, eta oraindik asko dago esateko.

Kontua ez da, ordea, orain ezker abertzalearen zilegitasun historikoa nork duen esatea. Akats larria litzateke pentsatzea ezker abertzalea guztiz iraultzailea izan zela, egun batean dena okertu zen arte. Era berean, bere baitan betidanik presente egon diren klase-interes kontraesankorrak ere ezin dira ezkutatu. Horregatik, beharrezkoa da gure iragana argitzen saiatzea, ez daitezen beste batzuk izan hura berriro dutenak. Mitologia baztertu eta historia proletario bat jarri behar zaio aurrean, eta horrek irakurketa fatalista eta deterministetan ez erortzea esan nahi du, eta ahaleginik ez egitea

idealizatzen ea zer gerta zitekeen gauzak beste era batera gertatu izan balar. Ez digute balio modu arbitrarioan eraikitako puzzle eklektikoek. Proletalgo iraultzailearen iraganeko esperientzia guztia laburbiltzeko gai izan behar dugu, ongi egindakoak eta akatsak aztertu, proiektu komunistaren bultzada historikoan gure ekarpena egiteko gaur egun. Iragana ahaztu gabe, oraina eta etorkizuna idaztea dago gure esku. /



Karlos Corbella

ERREFERENTZIAK

1. Posiciones ideológicas de la V Asamblea (1967)
2. Ideología oficial de Y (1967)
3. *Zutik* 51 (1969). Testuan agertzen diren aipu guztien itzulpenak berariaz lan honetarako itzuliak izan dira.
4. *Gudaldi* 3 (1970) (gaztelaniaz)
5. «A los revolucionarios vascos». *Gatazka* (1969)
6. «Alternativa de la tendencia marxista de ETA». *Zutik* 59 (1970) (gaztelaniaz)
7. Documento de los presos de Burgos al Biltzar Tipia de su organización Euskadi Ta Askatasuna (1971) (gaztelaniaz)
8. «Iraultzakín burgeseri abertzaleak duen zerikusia». *Zutik* 62 (1971)
9. «ETA-ren ideologiaren oihinarritzko puntu zenbait». *Zutik* 63 (1972)
10. «Zabala sekuestratu dugu, zergatik?» *Zutik* 63 (1972)
11. *Hautsi* 4 (1973) (gaztelaniaz)

12. Por qué estamos por un Estado Socialista Vasco (1973) (gaztelaniaz)
13. Histoire critique d'E.T.A. (1974) (frantsesez)
14. *Sugarra* 1 (1975) (gaztelaniaz)
15. ETArek agiria (1974)
16. *Zutik* 65 (1975)
17. El partido de los trabajadores vascos: una necesidad urgente en la coyuntura actual (1976) (gaztelaniaz)
18. Dos aportaciones de ETAm a la VII Asamblea (1976) (gaztelaniaz)
19. *Zutik* 67 (1976)
20. *Zutik* 68 (1977)
21. *Amasa* 1. Reagrupamendu taldeetarako aztergaiak (1976).
22. ElAren Agiria. Langileriari eta Euskal Herri osoari (1977)
23. Nazio Arazoa. *Beretherretxe* (1977)
24. *Zutik* 69 (1978)

BIBLIOGRAFIA

- Almeida, A.** (2019). *LAIA (Partido de los Trabajadores Patriotas Revolucionarios). Trayectorias políticas de un partido de izquierda abertzale (1974-1984)*
- Arregui, N.** (1981). *Memorias del KAS (1975-1978)*
- Letamendia, F.** (1975). *Historia de Euskadi, el nacionalismo vasco y ETA*
- Letamendia, F.** (1994). *Historia del nacionalismo vasco y de E.T.A.: E.T.A. en la Transición (1976-1982)*
- López Adán, E.** (2014). *Biolentzia politikoaren memoriak 1967-1978*

KOIUNTURA
Martin Goitiandia

78ko erregimena, demokrazia konstituzionala eta bere mugak

*«Ez al da hobe Alderdi Komunistak publikoki onartzea gure bizikidetzaren
oinarriak, hura suntsitzeko borrokatu beharrean?»*

ADOLFO SUÁREZ (1977), PCE-REN LEGALIZAZIOAZ

Alarma egoera aplikatu zenetik autoritarismoaren gorakadaz edo askatasun politikoen murrizketaz hitz egin izan da: esku-hartzeko polizial edota militarra gure etxe azpiko kaleetan, ukiezinak zirela uste genuen askatasunen desagertzea (zirkulazio askatasuna adibidez), administrazio publikoen zein botere judizialaren arbitrariotasuna... Izan ere, egoera «normala» galdu bezain pronto, gure gizartearen arabera beti errespetatu beharko liritekeen lege eta baloreak bete gabe uzten dira. Nola da posible hori? Bada, gure sistema politikoak bere oinarri propioak ez betetzeko mekanismoak aurreikusten dituelako. Demokrazia, parlamentarismoa, pluralismoa, funtsezko eskubideak, Zuzenbide Estatua... Konstituzioaren arabera, bere hamar tituluetan jasotako elementu horien defentsa da botere publikoen azken helburua. Baina, esan bezala, ikusi dugu behar denean ezabatu egiten direla demokraziaren zutabe horiek. Are gehiago; Konstituzioan bertan oinarritzko eduki hura desagiteko bideak aurreikusten ditu. Nola uler daiteke testu berean eduki bat funtsezkoa dela eta aldi berean berau desagerrarazteko bidea adieraztea? Izan ere, testuinguruaren arabera desagertzeko aukera badago, gure demokrazia hau ezin da gizarte honen funtsa izan, forma posibleetako bat baizik. Horrela uler daiteke forma demokratiko hau (askatasunak, eskubideak...) egoera normalean mantentzea, baina gauzak aldrebestean, aldiz, kolokan jartzea.

Kontraesan misteriotsu hori argitzeko bere jatorri eta oinarrira jo beharko dugu, eta apirileko ARTEKA honetan aukera paregabea dugu, hain

zuzen ere, 1975eko trantsiziora itzultzeko. Trantsizioa sakoneko erreforma multzo bat izan zen, 1975-1978 urteen artean Espainiako Estatuko instituzio burgesen hainbat ezaugarri aldatu zituena. 1978ko Konstituzioa eraldaketa horien oinarria jaso zuen testua izan zen: botereen banaketa, elkartzeko eta biltzeko askatasuna, pluralismo politikoa... Horrek guztiak Espainian demokrazia konstituzionala ezarri zuen, mendealdeko gainerako herrialdeen modura. Denok ikasi dugun kontaketaaren arabera, aldaketa horiek Espainia demokratiko eta ez-demokratikoaren arteko muga finkatuko lukete. Demokraziara bidean aurrera egitearen kontakizuna Espainiako Estatuaren joko politikoa integratuta egon diren alderdien kontsentsuaren parte izan da beraz. Modu horretan, Espainiaren demokratizazio hori airtortzen zuten (adibidez, Suresnesen

78ko Konstituzioak kontsentsu bat eratu zuen UCDtik PCeraino Espainiako Estatuko instituzio burgesak era batera aldatzeko. Orain 78ko Espainiako demokraziaren forma hura desagiten ari da, eta fakzio politiko bakoitzak bere proposamena du kontsentsu berri baterako. Kontua da beraz ez dagoela ukiezina den balio, askatasun, eskubide edo lege demokratikorik, ikusten dugun bezala egoerak eskatzen duenaren arabera desagertu egiten baitira eta kontsentsu berri bat eraikitzen baita

**Neurri horiek guztiak orain
arte aplikatu ez badira, legeek
errealitatean defendatu behar
dutena benetan arriskuan egon ez
delako da. Ordenamenduak ez du
Konstituzioan jasotako balio eta
askatasunak defendatzea helburu,
bestela ez luke zentzurik horiek
abolitzeko aukera jasotzeak**

PSOE eta Xibertan EAJ) eta onartzen ez zuten (adibidez, KAS) fakzio politikoaren arteko banaketa izan zen. Horregatik, berrogei urtez kontsentsu horren baitan aritu ondoren, gaur egun aipatu dugun bezala demokraziaren zutabeak eraisten direnean, posizioak apur bat nahaspilatzen dira. Zer esan nahi du horrek? Espainiak duela hamar urte baino «maila demokratiko» gehiago ala gutxiago du? Jada ez al da demokrazia bat? Faxista ote da Espainiak Estatu?

Hain zuzen ere, funtsezko balio demokratiko horien galerak posizio berriak definitu ditu egin beharreko erreformaren inguruan demokrazia ezberdinen artean: ohiko alderdi-bitasunak (PSOE-PP) auzi koiunturala dela esaten du eta berriro lehengo egoerara itzuli behar garela, erreforma moderatuaren aldekoek balio demokratikoak berreskuratzeko aldaketa batzuk egitea proposatzen dute baina oinarria mantenduz (Podemos eta Ciudadanos, adibidez) eta muturrekoenek erreforma handiak eskatzen dituzte 78ko erregimena (hau da, trantsizioko adostasuna) aldatzeko (EH Bildu eta CUP, adibidez). Hiru posizio horietara mugatzea oso sinplista da, baina nahi duenak informazio asko du alderdi bakoitzak diotenaren inguruan. Interesgarriena ez da beraz bata edo besteak eskatzen duen erreformaren dimentsioa aztertzea, beren programa erreforma bat izatearen muga ikusaraztea baizik. Hona hemen adierazi nahi duenaren funtsa: 78ko Konstituzioak kontsentsu bat eratu zuen UCDtik PCeraino Espainiak Estatu instituzio burgesak era batera aldatzeko. Orain 78ko Espainiak demokraziaren forma hura desagiten ari da, eta fakzio politiko bakoitzak bere proposamena du kontsentsu berri baterako. Kontua da beraz ez dagoela ukiezina den balio, askatasun, eskubide edo lege demokratikorik, ikusten dugun

Espainiak zein beste edonongo Estatuak forma demokratikoa hartzea edo galtzea kapital ezberdinen arteko kontsentsua da beraz; gainbalioaren erauzketarako onena dela uste dutelako hain zuzen ere

bezala egoerak eskatzen duenaren arabera desagertu egiten baitira eta kontsentsu berri bat eraikitzen baita.

Aurrekoan, zuzenbidearen teoriaren terminoetan, iusnaturalismorik ez dagoela esango genuke. Hau da, legea ez dagoela hor naturalak edo berezkoak (metajuridikoak, alegia) diren balio batzuk defendatzeko. Eskubideak, askatasunak eta orokorrean Zuzenbide Estatu Soziala osatzen duten elementuak desagertu egingo direla egoerak hala eskatzen badu. Horrek, Konstituzioaren kasuan adibidez, kontzeptu arrazional-normatibo baretik harago (Kelsen) Konstituzio erreala ezberdintzen duen kontzeptu soziologikora (Lasalle edo baita Marx ere) eramango gintuzke; unean uneko indar-korrelazioaren fruitua dela alegia. Dena den ez dago termino konplexu horietara jo beharrik esan nahi dudana azaltzeko, frogara argiena legean bertan dugu. Alarma egoerak esan bezala zerbait erakutsi badigu ezegonkortasun garaietarako legean aldaketa gogorrak aurreikusita dau-

dela da. Ba al dakizue, adibidez, alarma egoera greba batean ere aplikatu daitekeela? Hala da. Izan ere, grebak muga legalak errespetatzen ez baditu edota hornikuntza nolabait arriskuan jartzen badu aplikatu liteke. Muga horiek oso lausoak dira etxeratze-aginduak eta eremu zibiletan esku-hartze militarrek baimentzen dituen egoera bat aplikatzeko. Era berean, salbuespen egoera eta setio egoera ere ez dira apaingarri moduan idatzi Konstituzioan. Lehena ordena publikoaren nahasmendu hutsagatik aplikatzen da. Argi eta garbi, gatazka politikoetarako da beraz. Egoera horrek Konstituzioaren lehen titulua, oinarritzko eskubide eta askatasunena, zuzenean bete gabe uzteko balio du: bertan behera gertatzen dira adierazpen askatasuna, biltzeko askatasuna, greba eskubidea, polizia etxera ez sartzeko edo frogara gabe ez atxilotzeko bermea... Eta bigarrena aldiz aurrekoaren bertsio gogorra da, matxinada egoeretarako. Bertan aurreko bien efektuak biltzen dira beste batzuekin batera (atxilotuaren bermeak desagertzea, habeas corpus bezalakoak), baina gainera botere publikoen eskumenaren zati handi bat gobernuak hartzen du bere gain, eta beste asko horrek izendatutako autoritate militar batek.

Adibide eta aurrekari horiek muturrekoegiak iruditzen bazaizkizue oinarritzko balioen galarazpen partzialak ziurrenik gertukoagoak egingo zaizkizue, bereziki Euskal Herriaren historia gertutik ezagutzen baduzue. Terrorismoaren aurkako legea adibidez kolektibo jakin batentzat (Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduko, ENAMeko, militante eta inguruko pertsonentzako) oinarritzko askatasun eta eskubideen ezabatzea da. Askatasun horiek, Konstituzioaren arabera, pertsona garen heinean besterenezinak izan beharko lirarteke. Baina ordenamenduak ez du arazorik kolektibo edo

**[...] indar politikoen
arteko funtsezko
ezberdintasuna
dominazio burgesaren
formaren inguruan
eztabaidatzen dutenen
eta dominazio
burgesen abolizioaz
eztabaidatzen dutenen
artekoa da**

lurralde zehatz batean (*Zona Especial Norte* doktrina) horiek desegiteko. Lege hauen *ratio legis* delakoa (arrazoi-keta juridikoa, logika) beste pertsonen eskubide eta askatasunak defendatzea litzateke; segurtasun eta bizikidetzakontu bat beraz. Irailaren 11ko atentatuen ondoren AEBetako Senatuak aho batez onartutako *Patriot act* ere askatasunaren eta segurtasunaren arteko paradoxa liberal horren adibide argia da.

Neurri horiek guztiak orain arte aplikatu ez badira, legeek errealtatean defendatu behar dutena benetan arriskuan egon ez delako da. Ordenamenduak ez du Konstituzioan jasotako balio eta askatasunak defendatzea helburu, bestela ez luke zentzurik horiek abolitzeko aukera jasotzeak. Neurri horiek defendatzen dutena segurtasuna da, baina jendea defendatzeko ez dituzu diktadura militar baten ezaugarriak behar; horiek Kapitala babesteko behar dituzu. Langileek kaleak hartzen dituztenean, balio handiko jabetzak bermatu ezin dituzunean, jendea lanera joatera behartu behar duzunean... Halako egoeratarako behar duzu neurri horietan jasotakoa. Gainbalioaren erauzketa da ziurtatu beharrekoa azken instantzian, hori baita gizarte honen balio gorena. Lan soziala klase batek pilatzen badu, logikoa da pilaketa horren funtsa (gainbalioaren erauzketa, alegia) babestera bideratzea klase horrek bere ahalegin eta baliabideak, eta beraz baita gizarteko legea, indarra... ere.

Espainiako zein beste edonongo Estatuak forma demokratikoa hartzea edo galtzea kapital ezberdinen arteko kontsentsua da beraz; gainbalioaren erauzketarako onena dela uste dutelako hain zuzen ere. Espainiako Estatuaren kasuan une ezberdinetan faktore ezberdinen poderioz instituzio burgesei izaera bat edo beste eman zaie kapitalisten interesak babesteko:

1931, 1936, 1959, 1978... Forma demokratikoa edo bestelakoa izatea Kapitalaren interesen menpe egoteak ez du esan nahi berdin zaigula forma zein den. Hurrengo kontsentsua zein izango den eta dominazio burgesari zer nolako forma emango zaion ez dakit nik, baina Mugimendu Sozialistak hartu du bere posizioa desagertzen ari diren askatasunen defentsan. Hala ere, indar politikoen arteko funtsezko ezberdintasuna dominazio burgesarren formaren inguruan eztabaidatzen dutenen eta dominazio burgesarren abolizioaz eztabaidatzen dutenen artekoa da. Bigarrenak dira arazoaren errora irits daitezkeen bakarrak; izan ere, lehenengoak oso erradikalak izan arren, Kapitalaren beharren arabera adostasun berri baten parte izango dira beti, hori 78ko erregimena edo 2026koa izan. /





«Nazionalismoak gaina hartu zion erabat borroka sozialari»

ELKARRIZKETA

Emilio Lopez Adan Beltza

Militante historikoa,
idazle eta pentsalaria

Testua **Arteka**
Irudiak **Inhar Iraizotz**

Garai nahasiak izan ziren 1960ko hamarkadaz geroztik Euskal Herrian bizi izan zirenak. Zatiketa politikoez islatzen dituzten adarkatze ugariko zuhaitzez harago, zaila zaigu euskal nazio eta klase borrokaren bilakabidea ulertzea, eta are gehiago, jasandako porrotetatik irakaspenak erauztea.

Ale honetan, Emilio Lopez Adan *Beltza* (1946, Gasteiz) euskal militante historikoaren lekukotasuna bildu dugu. 1964an hasi zen Lopez Adan Euskadi Ta Askatasunan (ETA) militatzen, eta azken hamarkadetan, hainbat liburu idatzi ditu borroka armatuari, nazionalismoari eta klase borrokari buruz.



Zein testuinguru historikotan hasi zinen militatzen, eta zein izan da zure ibilbidea?

Nire familiaren eragin abertzale eta libertarioa jaso nuen gaztetan, eta 60ko hamarkadan, Arabako talde abertzaleekin —antolatuak ziren bakarrak— harremanak izaten hasi nintzen. Horren bestez, 1964an ETAn sartzea erabaki nuen, une hartan abertzaletasunaren defendatzaile handiena zelako, baina baita erakunde aski irekia zelako ere, iraultza komunistaren bidean, oinarri sozial anitzen eraginak jasotzen zituelako.

Hortik hiru urtera, erakundearen bosgarren asanblada izan genuen. Prozesu hura oro har behar bezalakoa izan zela uste dut, aski demokratikoa. Urte hartan, Biltzar Ttipiko kide hau-

tatu ninduten; orduan, medikuntza ikasketak utzi eta klandestinitatean sartu nintzen. Komite Exekutibo Taktikoa deituriko buruzagitza sortu zuen BTak eta bertan aritu ginen, besteak beste, Txabi Etxebarrieta, Jose Maria Eskubi, Edur Arregi eta ni. BTko hainbat kide erbesteratu ondoan, KETek hartu zuen erakundearen gidaritza. Hala ere, 1968an erbestera jo behar izan nuen, eta Iparraldeko herrialde buru gisa aritu nintzen, harik eta Belgikara joan nintzen arte.

1970ean, ETAn seigarren asanblada sonatua izan zen, eta erakundea bi talde nagusitan zatitu zen, iraultza Estatu mailan egin nahi zutenen, eta euskaldunon autonomia estrategikoaren alde zirenen artean. Ni azken aukera horrekin lerratu nintzen, ETA-V.aren alde hain zuzen. Gu-



ETA-V.aren barnean, une historiko zehatz horretan, arazo soziala eta nazionala elkarrekin zihoozela ondorioztatu genuen. Izan ere, euskal proletalgoak bakarrik biltzen zituen auzi nazionalari aterabidea emateko baldintzak

re joera minoritarioa zen momentu horretan, eta gure artean nazionalista sutsuak genituen, zeinentzat ETA-VI. aren estrategia estatalista, estrategia espainolista hutsa zen. Nik ez nuen ikuskera hori partekatzen, baina iruditzen zitzaidan, abertzaletasunak zer indar zuen ikusita, Euskal Herrian iraultza propioa egin beharra genuela, bide estrategiko propioarekin.

Oso garai gogorrak izan ziren, nire bizitzako gogorrenak. Astindu pertsonal eta ideologiko ederrak bildu genituen, baita, hasiera batean, seigarrenaren diziplinaren pean ziren Burgosko auzipetuen partetik ere.

ETA-V.aren barnean nazionalismoa nagusi bazen ere, beste hainbat kide berriekin nazionalismo iraultzailea aldarrikatu zenuten barnetik...

ETA-V.aren gidaritzaz *miliek* zuten baina laster gazte sozialista eta iraultzaile anitz batu ziren erakundera, balio handiko jendea, besteak beste, Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur*. Gazte horiekin batera gogotik parte hartu genuen *Hautsi* aldizkariaren erredakzioan, eta *miliek* onargarritasunez jokatu zuten gurekin. Talde horretan, jada ni nintzen zaharrena. Nire aldetik, urte horietan, eragin garrantzitsua jaso nuen Federico Krutwigen partetik, baina baita komunismo libertarioaren aldetik ere.

1974an, ordea, Fronte Langilearen zati handi batek erakundetik zatitzea erabaki zuen LAIA alderdia sortzeko, horien artean ni. Hilabete batzuk geroago, *polimilien* eta *milien* arteko bereizketa ere izan zen. LAIAko kideon iritziz, ETAn eragin burges txikiak —EGI-Batasuna, *kabrak*, *monzonestak*— gaina hartu zuen. LAIAko kideak, batez ere, marxista kontsejuzaleak ziren, langileen autoantolakuntzaren aldekoak. Gure ustez, gertatzen ari zen masen garapenarekin lotzeko beharra genuen.

Bi urte geroago, ordea, LAIA ere bitan zatitu zen, KAS Alternatiba taktikoaren aldekoen —LAIA (bai)— eta

kontrakoen —LAIA (ez), aurrerago LAIAK— artean. Ni azken hauekin joan nintzen, zeinek Komando Autonomo Antikapitalisten sorreran parte hartu zuten.

Azkenik, 1984aren bueltan, borroka autonomoaren krisi orokorra eta gainbehera etorri ziren, errepresio bortitzaren, mugimendu asanblearioaren beheraldiaren eta ETak berak eraman zuen autonomoen kontrako ofentsiba politiko-moralaren ondorioz. Hor amaitu zen, nire ustez, autoantolakuntza iraultzailearen protagonismoa.

Ordutik, medikuntzan segitu nuen Iparraldean, baita idazle bezala ere. Kazetaritza lanez gain, hainbat liburu idatzi ditut euskal nazionalismoaren historiaren, klase borrokaren eta Euskal Herriko biolentzia politikoaren inguruan.

Abertzaletasunak eta klase borroka Euskal Herrian izan duten loturari dagokionez, zer nabarmenduko zenuke 1967-2011 arteko borroka ziklotik?

Nazionalismoak gaina hartu ziola erabat borroka sozialari.

ETA-V.aren barnean, une historiko zehatz horretan, arazo soziala eta nazionala elkarrekin zihoazela ondorioztatu genuen. Izan ere, euskal proletalgoak bakarrik biltzen zituen auzi nazionalari aterabidea emateko baldintzak, euskal oligarkia espainolista ez ezik frankismoaren sostengatzailea zelako, eta euskal burgesia nazionala —EAJri loturikoa— ikuspegi nazional zein sozialetik erreformista zelako. Euskal proletalgoa une berezian zegoen; industrializazioa fase bete-betean, immigrazio olatu handiak izan ziren Euskal Herrian, eta masa handien proletarizazioa gertatu zen. Horregatik, auzi nazionalari perspektiba iraultzailea ematea ezinbestekoa zela ondorioztatu genuen, eta horrela sortu zen *Euskal Herri Langilea* izen-dapena. Horrek, hasiera batean, indar eta koherentzia handia eman zion gure diskurtsoari. Gainera, nazioar-



Iraultza soziala alboratu zen, eta autonomia estatutua eta autodeterminazioa negoziatzea bilakatu zen xede. Hortik aurrera, ETak gauzatuko zituen egokitzapen guztietan, joera erreformista eta nazionalista hori are gehiago nabarmenduko ziren





Nazionalismo sutsua aldarrikatzeak ez du zerikusirik iraultza sozialarekin. Euskal Herrian asko zabaldu da ikuskera hori: alegia, gero eta euskaldunagoa izan, orduan eta iraultzaileagoa izanen zarela. Eta hori ez da horrela. Euskalduna iraultzailea izanen da soilik munduko printzipio iraultzaileak bere egiten baditu

tean, kolonialismoaren edo inperialismoaren aurkako borroka armatuak emendatzen hasi ziren. Mugimendu horiek maoismoaren nahiz marxismo-leninismoaren eragina izateaz gain, eduki nazional indartsua zuten. Borroka anticolonialista hark eragin nabarmena izan zuen gure herrian.

Hala ere, ildo soziala eta nazionala batzen zituen ikuskerak horrek, bere horretan, ez zuen gehiegi iraun, ez da?

Arazoa da bi borroka ildoen —sozialaren eta nazionalaren— erabateko batasuna, eraikuntza intelektual bat besterik ez zela, une zehatz horretan baliagarri izan zitzaguna.

Urte batzuen buruan, arazo nazional eta sozialaren arteko kontraesanak nabarmenduz joan ziren, eta hasierako eraikuntza intelektualarekiko haustura gertatu zen. Bestalde, matxinada pizteko ezintasunak gainditu nahian, negoziazioaren eta erakunde gidariaren eredura igaro zen ETA, Argalaren gidaritzan pean. Aldaketa horrek ekarri zuen KAS Alternatibaren sorrera 1976an, zeinetan argiki eduki nazionala sozialari gailendu zitzaion. Bere izaera taktikoa zela eta, KAS Alternatiba programa erreformista bat zela esan genezake, eduki sozial lausoa zuena. Iraultza soziala alboratu zen, eta autonomia estatutua eta autodeterminazioa negoziatzea bilakatu

zen xede. Hortik aurrera, ETAK gauzatuko zituen egokitzapen guztietan, joera erreformista eta nazionalista hori are gehiago nabarmenduko ziren. Horren adibide da, KASEn bost puntuetatik, 1995ean autodeterminazioa eta lurraldetasunaren onarpena ardatz zituen Alternatiba Demokratikora pasatu izana. Horrela, ETA militarrek —gerora, ETA erakundeak— minimo horien lorpena zuzendu zituen, kasik eskusiboki, borroka armatuaren ekintzak, langileriaren zuzeneko beharrei edo klase gatazkei erantzun beharrean. Haatik, azken aspektu hori, gehiago landuko zuten *polimilik* eta autonomoek.

ETAK, indar metaketaren teoriaren bidez, solaskide funtzioa hartu du Estatuaren parean, herriaren protagonismoa erakundearen protagonismoa-gatik ordezkatzuz, eta bereziki, eduki nazionalista batean oinarrituz. Noski, eduki nazionalistarekin nor ibiltzen da eroso? Burges txikiak, hots, euskal burgesia nazionala.


Baina, ezinbestekoa zenez oinarri sozial iraultzailea hurbil mantentzea, hainbat saiakera teoriko egin ziren borroka nazionala arropa iraultzailez janzteko, eta modu horretan, jende askok pentsatu du iraultza sozialista egiten zuela ezker abertzaleko erakundeetan sartuta. Eta zentzu horretan, desbideraketa teoriko oso larriak gertatu izan dira; esaterako,

antikolonialismoaren garaian, ekimen iraultzailetzat hartzen zen nazio zapalduen aldeko nazionalismoa sustatze soilak, etsai inperialistari min gehien egiten zion jarrera zelakoan. Baina, nazionalismo sutsua aldarrikatzeak ez du zerikusirik iraultza sozialarekin. Euskal Herrian asko zabaldu da ikuskera hori: alegia, gero eta euskaldunagoa izan, orduan eta iraultzaileagoa izanen zarela. Eta hori ez da horrela. Euskalduna iraultzailea izanen da soilik munduko printzipio iraultzaileak bere egiten baditu.

Askapen prozesuan jarraitu beharreko estrategiari dagokionez, zeintzuk ziren ezker abertzale zabalaren baitan zeuden hipotesi desberdinak?

Autonomoek ez zuten baieztatzen iraultza sozialista derrigor etorriko zenik, baina ez zuten aukera hori ukatzen, eta ondorioz, ez zeuden prest demokrazia burgesak onar zezakeen programa taktiko bat babesteko. Hala ere, autonomoen aldetik ez zen antolaketa-batasunik, ezta batasun estrategikorik ere. Askotan, gainera, aski gaiztotu ziren talde batzuen arteko harremanak.

Milien iritziz, argi zegoen erregimen demokratiko burges berria diktadura militarren jarraipen hutsa zela, eta hori babestu zuten, gutxi gorabehera, Alternatiba Demokratikora



Punto y Hora de Euskal Herria, 34 (1977)


Aukera arrazionalak egon bazeuden pentsatzeko posible zela polimiliek erdietsitako amnistia lortzea, duintasun handiagoarekin eta, gainera, KAS Alternatibaren puntuekin batera. Bide horrek eramán zituen 1989ko Aljeriako elkarrizketetara

arte. Matxinada baztertu, eta negoziatzioaren bidea hartu zuten. Zergatik hartu zuten bide hori? Supleki iraultzarako baldintza objektibo eta subjektiborik ez zela pentsatu zutelako: Estatuko gainerako lurraldeak ez zeuden Euskal Herriko borroka-mailan eta, era berean, gure herrian, gizartea erosotasunean erortzen ari zen. Eduki erreformista negoziatzea bilakatu zen xedea, beraz, jada ez zegoen herriari protagonismoa eman beharrik, aski zen erakunde batek gidaritza osoa hartzea. Baina hori ez zen ETAk unera arte izandako jarrera; izan ere, herriaren zerbitzura zegoen erakunde bezala definitzen zuen ETAk bere burua, eta modu erabat esplizituan gainera.

Polimilien artean jarrera aski desberdina zen. Pertur eta haren lagunen analisisen arabera, borroka armatuak zuzendaritza politiko baten pean jardun beharra zuen —*milien* eskema itzulikatuz—, eta borroka armatua baliatu beharra zegoen Estatuak zituena kontraesanak areagotzeko. Haien analisisen arabera, ez zen Estatuan iraultza egiteko aukerarik; alabaina, sektore erreakzionarioenak kolpatuz, uste zuten burgesia progresista behartu zezaketela proletalgoaren iraultza babesten zuten taldeekin bat egitera. Hau da, iraultza egikaritzeko baldintzak sortu eta indar-korrelazioak aldatu nahi zituzten; hori lortuz gero, borroka militarra bigarren planora pasatzeko aukerak egon zitezkeela uste zuten, borroka politikoaren mesedetan. Hori zen *polimilien* hipotesia, hasitapenean behintzat. Gero, Euskadiko Ezkerrak eginen zuena, beste gauza bat da, eta ez da nahasi behar Pertur eta haren lagunen ereduarekin.

80eko hamarkadan gauzak dezente aldatu ziren, ordea...

Bai, hori guztia 1982aren bueltan zapartatu zen, baina zapartatu beneran. *Tejerokadak* huts egin zuenean (edo agian ez zen huts bat izan, eta behar zena ekarri zuen...) bi gauza gertatu ziren: batetik, 1978ko Konstituzioaren inguruan frankismoa erres-



petatzen zuen sistema ustel bat ezarri zela, PSOEren gidaritzapean gainera; eta bestetik, Europako demokrazien izaera autoritario eta antiiraultzailea sendotzen ari zela. Aldaketa horiek, aukera iraultzaileak moztu eta borroka armatuaren praktika lekuz kanpo utzi zuten Europa osoan. Hamarkada horretan deseginen ziren *polimilien* bi adarrak —zazpigarrenak (1982) eta zortzigarrenak (1986)— eta KAAk (1984 inguruan). ETA militarrek, zuen indar handiaren jabe, jarraitzea erabaki zuen Estatua negoziatzera behartuko zuela sinetsita.

Zein balantze egiten duzu, gaurko egunez, joera horien inguruan?

Balantzea egiteko, ezinbestekoa da kontuan hartzea momentuan zer ikusten zen aukera gisa, zer gaitasun

zeuden eta zein zen garaiko pentsaera. ETA militarrek egin zituen hautu estrategikoak militarri eta logistikoki oso indartsu zegoen une batean egin zituen. Jende oso trebatua eta sostengu sozial handia zuen, horrela ulertzen da borroka armatuaren bidean jarraitu izana beste taldeak desegiten ari zirenean. Finean, aukera arrazionalak egon bazeuden pentsatzeko posible zela *polimiliek* erdietsitako amnistia lortzea, duintasun handiagoarekin eta, gainera, KAS Alternatibaren puntuekin batera. Bide horrek eraman zituen 1989ko Aljeriako elkarrizketetara.

Elkarrizketa horien hausturak, eta gerora *Oldartzen*-en —ekintza armatuen jomugen hedapena— garaiek erakunde masengandik aldendu zituztela esan liteke. Etsaia negoziatzera eta amore ematera bultzatzeko xedez,

ETAk taktika terroristak baliatu izan ditu, jomuga zibilak kolpatuz. Horrek eragin ikaragarria izan zuen masekiko zuen atxikimenduan.

Ezin zen jakin zer gertatuko zen, baina nire ustez, Aljeriakoa izan zen aukera onena duintasunez bukatzeko, eta hori zen ezker abertzalearen barnean pertsona andana batek zeritzona. Hala ere, horretaz gain, jende askok borroka instituzionala lantza-puntan jartzeko abiapuntu bezala ikusten zuen estrategia politiko-militarraren amaiera.

Matxinadatik erreformismora salto egin zen orduan...

Ez da ahanzi behar, Herri Batasuna sortu zen unetik abertzale erradikalen batasuna lehenetsi zela ororen gainetik, *miliek* egin bezala. Ezker





abertzaletik jende anitz bota da espainolista zelakoan, baina inor ez da bota sozialista edo komunista ez zelako. Horrek azaltzen du monzonismoak ezker abertzalean hartutako indarra, eta haren eraginari buruzko kritika eskasia. Hala ere, horrek ez du kentzen balio handiko jenderik ez zenik horien artean.

HBren bidez, abertzale erradikalek aukera eta aukera erreformista abantailatsuak lortu zituzten, eta horietan sakontzeko itxaropena zuten. HBk lehen bozetan parte hartu ez bazuen ere, ez zen izan demokrazia ordezkatzalean sinesten ez zuelako, baizik eta berme demokratiko askirik — amnistia, alderdien legaltasuna... — ez zegoelako. Azken finean, pertsona horiek uste zuten erakundeetatik gehiago egin zitekeela euskalduntasunaren eta autodeterminazio eskubidearen alde, eta argi ikusten zuten borroka armatua eta herri mugimendua, borroka instituzionalarekin lotuta emaitza hobeak lor zitezkeela. Ikuskera hori, adibidez, Leitzarango autobidearen kontrako borrokan kondentsatu zen. Praktika hori demokrazia formalarekin eta klase borrokatik aldendutako ekimenei estuki lotua dago, eta badi-rudi gaur egun ere, borroka armatua baztertuta, hori dela kredoa.

Erakunde armatuak zein eredu babesten zuten horren aurrean?

Erakundean pentsatzen zuten borroka armatua izan behar zela mugimenduaren erpina, masa mugimendua haren inguruan antolatuta eta borroka instituzionala buztanean kokatuta. Baina HBk hauteskundeei begira zuen ahalmena modu *errealistan* —instituzioetan— baliatu nahi zutenek ere beren aldetik tiraka jardun zuten, noski. Jende hori beti izan da ezker abertzalean; engaiamendu sendoa izan dute eta errepresio latza pairatu dute. Sektore horrek oso kolpe latzak jasan zituen Lizarra-Garaziko eta Loiola-Genevako elkarrizketak hautsi zirenean, bai Estatuaren partetik, baina baita erakundearenetik ere. Azken

saiakera horren ondotik, eta *Oldar-tzenen*-ek ekarritako desmasia gelditu asmoz, HBko talde horrek hartu zuen egoerari itzulia emateko deliberoa, eta horiek izan ziren, hain zuzen ere, ezker abertzalean jarrera sozialdemokrataren protagonista.

Hala ere, aldaketa hori ezker abertzalearen oinarriarekin hautsi gabe gauzatzea lortu zen, ezker abertzalea errepresioak estuki trinkotutako komunitate bat zelako, eta ardura-dun politikoeikiko diziplina zorrotza eta miresmena zegoelako, 30 urtez ereindakoa. Hori dela eta, naturala da aldaketa kritikoa belaunaldi gazteek ekarri izana egun.

Zure iritziz, zer ekarri du ezker abertzalean ildo sozialdemokrata nagusitu izanak?

Sozialdemokraziaren istorioarekin kontuan hartu behar da, sozialdemokrata ez direla izan infiltratu batzuk, baizik eta bilakaera bat izan duten sozialista iraultzaileak. Haiek pentsatzen dute herriarentzako onena erakundeetan nagusitasuna irabaztea dela, hots, erakundeetatik erreforma sozialak egitea posible dela, eta ez direla soilik langile-klasearen ordezkari izan behar, baizik eta askatasuna merezi duen herri oso batena. Horrek atea irekitzen dio klaseartekotasunari, eta demokrazia ordezkatzalearen onarpenari, demokrazia zuzenaren kaltetan.

Bilakaera pertsonalak ezberdina izan dira, jakina, baina oro har, zer gertatzen da ildo sozialdemokratarekin? Ba, azkenean, ordenarekin eta boterearekin identifikatzen hasten dela eta une batetik goiti, bide erreformista kaltetzen duten “ameskeria” iraultzaileen kontrako errepresioari bidea irekitzen diola. Eta hori sozialdemokrazia boterera heldu zen lehen unetik gertatu zen, nola hil ziren bestela Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht?

Mende bukaeratik, alabaina, sozialdemokraziak Frantziako miterrandismoaren edo Ingalaterrako blairismoaren joera jarraituko du, kapitalismoari ekonomia gidatzeko zilegitasun osoa esleituta, eta Estatuan haren zerbitzari bilakatuta: sozial liberalismoa, funtsean. Eboluzio hori gertatu bada mundu osoan, nola pentsatu daiteke Euskal Herrian ezberdin gertatuko denik? Hau da, nola sinets daiteke euskaldunok erakundeetatik eta kapitalismoarekin konfrontazio garbirik izan gabe, iraultza eginen dugula? Beste lekuetan gertatu dena, bada, hemen ere gertatuko da, eta euskalduntasunak ez gaitu horren kontra txertatzen.

Hala ere, ez dut ukatzen pertsona horiek bide hori herriarentzat mesedegarri dela pentsatuz abiatu ez zutenik.



Herri Batasuna sortu zen unetik abertzale erradikalen batasuna lehenetsi zela ororen gainera, miliek egin bezala. Ezker abertzaletik jende anitz bota da espainolista zelakoan, baina inor ez da bota sozialista edo komunista ez zelako



**«Euskal Herrian
borroka armatua
egin dugun
militanteok beti izan
dugu helburutzat
askatasuna,
nazionala zein
soziala, eta
horregatik, gudari
guztiek leku bat
merezi dute munduko
askatasunaren
aldeko borrokaren
historian»**

Era berean, aski kritiko agertu zara joera bakezaleekin, eta preso politikoen trataerarekin.

Bai, eta sozialdemokraziarekin lotu daiteke bakezaletasuna, baita borroka armatuaren kondena ere. Urte gutxian, estrategia politiko-militarra baliatzetik, biolentzia orori politika egiteko zilegitasuna kendu diote. Alabaina ezin dira parekatu arma sofistikatu bidezko biolentzia eta kale borroka. Bakezaletasunak edozein jazarpenetik babesteko zilegitasuna ukatzen badu, errepresio indiskriminatuari bidea irekitzen dio. Are larriago izan liteke, delako bakezaleek *jarraitxu* berriak isolatu eta indar errepresiboen eskutan uzten badituzte, gobernu sozialdemokrata autoritarioak sostengatzen dituzten bitartean. Nik uste, aurreko hamarkadetan borrokan aritu den eta errepresio latza pairatu duen jende zintzo asko dagoela gaur egun kontzientzia arazo larriekin. Baina aurreko borroka fasea eta errepresio gogorra ezagutu ez duten sozialdemokrata berriek, soilik egungo egoera ezagutuko dute, eta errazago emanen dituzte urratsak jarrera autoritarioetara.

Zentzu horretan, bakezaletasuna eta preso politikoen gaia uztartze-ko, presoen biktimizazioa izan dela pentsatzen dut, hau da, presoei beren izaera politikoa eta duintasuna ukatu zaizkiela, baita ezker abertzalean ere.

Aldiz, ETAn eta haren inguruko mugimenduetan militatu duten pertsona guztiek askatasunaren alde egin dute borroka: gudariak, gudari dira eta kitto. Horregatik, preso guzti-guztiek, baita kritikatu dudana azken buruzagiarekin ere, elkartasunez, amnistia aldeztuko dut.

**Borroka armatua Euskadin
1967-2011 lana argitaratu berri
duzu, 40 urtez Euskal Herrian
izan diren ekintza armatu
guztien ikerketan oinarrituta.
Zein da lan horren asmoa?**

Beharrezkoa iruditut zitzaidan gure borroka armatuaren kronika bat egitea, egitateetan oinarrituta, mistifikaziotik eta bertsio ofizialeetatik aske: borroka armatua-ekintza armatuak; guk egin ditugunak, eta guri egin dizkigutenak. Horrenbestez, ekintza guztiak banan-banan ikertu ditut, eta bakoitzean honakoa bildu dut: zer gertatu zen, zer esan zen momentuan (agiriak, prentsa, adierazpenak...), zer iritzi eman den ikerketetan eta azkenik, gaur egun protagonistek beren memorietan zer esaten duten.

Dokumentazio lan horren ostean, biharko eguneko borrokari ekarpena egin nahian, arazo estrategiko eta arazo etikoaren inguruko hausnarketa plazaratzen da. Zentzu horretan, anitzetan ikusiko dugu nola akats etikoek, akats estrategiko ikaragarriak ekarri dituzten; esaterako, ekintzek zibilak kolpatu dituztenean. Kritika eta hausnarketa guztien asmoa, guk geuk eraman genuen borrokaren zentzua ulertzea litzateke, baita etorkizuneko borrokari ekarpena egitea ere; eta jakina, ikuspegi errepresiboa inola ere elikatu gabe.

Edozein kasutan, Euskal Herrian borroka armatua egin dugun militanteok beti izan dugu helburutzat askatasuna, nazionala zein soziala, eta horregatik, gudari guztiek leku bat merezi dute munduko askatasunaren aldeko borrokaren historian. /



Barrikada bereko lagunak



Testua
Imanol Satrustegi

Irudiak
Archivo de la Transición
Mikel Alonso

Euskal Herrian XXI. mendearen hasieran gizarte mugimenduetan korronte politiko batek izan du nagusigoa, protesta mugimendu horien ia erabateko monopolioa izateraino. Baina, hori ez zen beti horrela izan; iraganean beste korronte iraultzaile batek «euskal masa mugimendu erradikalean» errotze ahalmen handia izan baitzuen, ezker abertzalearekin batera. Korronte hari *ezker iraultzaile* edo *ezker erradikal* esaten zitzaion. Zenbait sektorek, modu bidegabean, korronte hura mespretxatu zuten espainolista edo sukurtsalista izatea leporaturik. Alabaina, korronte hura klase borrokak gurean hartu zuen formetako bat izan zen eta Euskal Herriaren tradizio iraultzailearen ezinbesteko pieza osatu zuen.



Orain dela gutxira arte, klase borroka eta sozialismoaren aldeko borroka ahaztu xamar zeuden; gizarte mugimenduetan bazterreko papera jokatzaren bandera gorriak. Euskal Herrian urte luzez borroka sozial gatazkatsuak egon izan diren arren, sozialismo errealearen porrotak eta mugimendu abertzaleetan joera burges-txikiaren influentziak hori horrela izan zedin eragin zuten.

Baina beti ez zen horrela izan, garai batean klase borrokek zentraltasun handia izan baitzuen Euskal Herriko mugimendu iraultzaileetan. Frankismoaren hondar urteetan Hego Euskal Herriko oposizio antifrankistan izaera iraultzailea zuten hainbat alderdi komunista eratu ziren. Alderdi horiek, nazioarteko koiunturak eta espektatiba iraultzaileek lagunduta, oihartzun handia izan zuten eta eragin esparru zabalak lortu zituzten, batik bat langile mugimenduan. Alderdi horiek guztiek 60ko hamarkadaren bukaeraren bueltan izan zuten jatorria eta beraien gorrengo unea trantsizioko urte giltzarrietan izan zen (1975-77). Mobilizazioen bidez gizartearen sektore ugariarekin bat egitea lortu zuten eta diktadura frankista higitzen lagundu zuten. 1980ko hamarkadaren hasierarako, aldez, korrante iraultzaile hura gainbeheran sartu eta ahitu zen. Besteak beste, Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK), Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT), Liga Komunista Iraultzailea (LKI, lehenago LCR-ETA VI), Komunisten Liga (LC), Partido del Trabajo de España (PTE, aurretik Partido Comunista de España -Internacional-) edo Ezker Komunista Erakundea (OIC-EKE) bezalako alderdiez ari gara¹. Horiek izan ziren garrantzitsuenak, besteren bat ere izan bazen ere.

Langile mugimenduaren porrot orokorraren ondorioz, tradizio iraultzaile horien inguruko memorian etena gertatu zen. Belaunaldien arteko lotura hautsi zen eta gaurko komunistek ez dituzte orduko lengoaiak, leloak edo antolaketa ereduak ezagutzen ere. Baina azken urteetan klase izaera duten

Frankismoaren hondar urteetan Hego Euskal Herriko oposizio antifrankistan izaera iraultzailea zuten hainbat alderdi komunista eratu ziren

mugimendu politikoen loraldi garaia bizi dugu. Gar iraultzailearen berpizkundera gertatzen ari da eta iraganeko kultura errebeldeen ezagutza egungo mugimendu sozialistarentzako baliagarria izan daiteke. Baina ez nazazue gaizki uler: helburua ez da garai hartako langile kultura eta estetika akritikoki kopiazea, hori folklore hutsa bailitzateke. Momentu hartako baliabideek, garaian garaiko beharrei erantzuten zieten eta gaur egungo gizarte mugimenduek bestelako baliabideak behar dituzte, garai honi dagozkionak. Baina baliabide propio berriak sortzeko, langile mugimenduaren eta mugimendu sozialen iragana berreskuratzea aberasgarria izan daiteke.

NOLA ETA NONDIK SORTU ZEN EZKER IRAULTZAILEA?

60ko hamarkadaren bukaera aldera, mundu guztiko mugimendu askatzaileek bultzada handia bizi izan zuten. Klase borrokaren intentsitatea zorrozten ari zen, Hirugarren Munduko herrialdeak altxatzen ari ziren eta bazirudien munduko edozein txokotan aldaketa sozial sakonak lor zitezkeela. Gerra Hotz betean, kapitalismoa eta sozialismoa lehia bizi-bizian zeuden, eta Sobietar Batasunaren izate hutsak —askorentzako kritikagarria zen arren— eraldaketa sozialerako aukerak irekitzen zituen. Hala bada, nazioarteko erradikalizazio prozesu orokor hori 68 Luzea edo Klase Gizartearen Aurkako Bigarren Oldarraldi Proletarioa izenez





Alderdi horiek guztiek 60ko hamarkadaren bukaeraren bueltan izan zuten jatorria eta beraien gorengo unea trantsizioko urte giltzarrietan izan zen (1975-77)

ezagutzen da egun.

Aldi berean, gerraondoko urte horietan, ekonomia kapitalista inoizko hazkunde ekonomiko handiaren murgilduta zegoen. Hasiera batean, diktadura frankista zela eta, Espainia Europako gainerako herrialdeetako egoeratik bereizirik geratu zen: atzeraldi ekonomikoan eta isolamendu politikoan murgildurik. Baina egoterra 1950eko hamarkadaren erdialdean aldatzen hasi zen, AEBekin egindako akordio komertzialen eta 1959ko Egonkortze Planaren ondorioz. *Desarrollismoa* izeneko bultzada industrializatzaileak Hego Euskal Herriaren egitura ekonomikoa irauli zuen; batik bat barnealdeko probintzietan, Arabak eta Nafarroak erabateko industria iraultza bat bizi izan zuten eta. Hazkunde ekonomiko hura eredu fordistako kapitalismoan oinarritu zen eta proletariozaren izaera eta osaera erabat aldatu zituen.

Aldaketa sozioekonomiko sakon horien ondorioz, landa exodoa eta nekazari ugariaren proletarizazioa gertatu zen, langile-klase berri bat sor zedila eragin zuena. Langile-klase hura gehien bat pertsona gaztez osatua zegoen eta ez zeukan gerraurreko tradizio ezker-tiarrekin lotura zuzenik. Laster, kapitalismoaren eredu berriarekin batera, enpresari eta langileen arteko harreman berriak eratu ziren eta lan-gatazken aldi berri bat ireki zen, batik bat 1958ko Hitzarmen Kolektiboen legea onartu zenetik. Testuinguru horretan, langileek elkarrekin jasandako eta partekatutako bizipenen bidez (esplotazio esperientziak, behar ekonomikoak, borroak...) identitate berri bat (subjektibitate edo «gu» berri bat alegia) eratu zuten. Modu hartara, langile-klase hark kontzientzia hartu zuen eta subjektu historiko gisa eratu zen².

Laster langile-klaseak kontzientzia hartu zuen eta bere interesen defentsarako tresna eraginkorrak eratu zituen: klase elkartasuna eta Langile Batzordeak (gaztelaniazko CCOO, oinarriko langile-elkarte unitarioak ziren eta ez gaur egun ezagutzen dugun sindikatu

**Ezker
iraultzailearen
korronte politikoa,
beraz, klase
borrokaren
errealitate berri
horri erantzuteko
sortu zen,
nazioarteko
erradikalizazio
testuinguru
horretan**

burokratikoa)³. Ezker iraultzailearen korronte politikoa, beraz, klase borrokaren errealitate berri horri erantzuteko sortu zen, nazioarteko erradikalizazio testuinguru horretan.

Jakina den bezala, ezker iraultzaileak ez zuen korronte bateratu eta bakar bat osatu. Izan ere, erreferentzia ideologiko ezberdinetako (maoismoa, trotskismoa, leninismoa, hoxhaismoa, kontseilu-komunismoa...) hainbat talde elkarren artean lehian aritu ziren espazio politiko mehar batean. Oro har, elkarte horiek guztiek hainbat iturburutan izan zuten jatorria: ikasle mugimendu erradikalizatuan, PCEn ezkerretik gertatutako zatiketetan (batik bat, Espainian), ETaren korronte *obreristetan* eta mugimendu apostoliko kristau erradikalizatuetan. Euskal Herrian, alabaina, eragin gehien izan zutenak azken biak izan ziren.

Alde batetik, ezker erradikalaren iturburu kristauak jende zapalduengana hurbildutako sektore apostoliko

erradikalizatuetan izan zuen jatorria, Elizaren doktrina sozialaren eta Vatikanoko II. Kontzilioaren (1962-1965) ondorioz. Hermandad Obrera de Acción Católica (HOAC), Juventud Obrera Católica (JOC) edo Vanguardia Obrera Social (VOS) bezalako elkarten hasierako helburua ebanjelioa gizartearen sektore baztertuenei eramatea zen. Elkarte horien zeregina langileen sozializazio esparru kristauak bultzatzea izan zen eta, hasiera batean, ez zuten zuzeneko aktibismo politikorik egiten: langileei lanbide heziketa, formakuntza izpirituala eta aisialdi merkea eskaintzen zizkieten. Jarduera horiek guztiak nolabaiteko sozializazio prepolitikorako esparru izan ziren⁴. Baina laster, mugimendu horietako kide ugari erradikalizatu zen, langileen behar gorriekin eta askatasun ezarekin talka egiterakoan, eta kontzientzia soziala piztu zitzaien. Katolizismo sozialaren parte ziren elkarte horiek ezker iraultzailearen sorrera ahalbidetu




zuten, militanteen topagune eta formakuntza eskola izan zirelako. Gainera, Elizak erraztasun legalak zituenek, bere elkarguneak eta baliabideak ezker iraultzailearen lehendabiziko urratsetarako baliagarri izan ziren. Halaber, elkarre kristauetatik eta apaiztegitik pasatutako lagun askok alderdi iraultzaileak militantez eta koadroz hornitu zituzten. Etsenplu garbiena, ORT alderdi maoistarena izan zen, VOS elkarre jesuitako kideek sortutako AST (Acción Sindical de Trabajadores, Langileen Ekintza Sindikala) sindikatu izan baitzuen jatorria. Baina gainerako alderdietan ere mugimendu kristau horietatik pasatutako kideak egon ziren.

Bestalde, Euskadi Ta Askatasuna (ETA) erakundeak garatu ziren korronte *obreristak* izan ziren Euskal Herriko ezker iraultzailearen beste iturburu garrantzitsua. ETA 60ko eta 70eko

hamarkadetan komunisten haztegi izan zen. *Desarrollismoko* industrializazio azkarrak sortutako aldaketa demografiko eta soziologikoei mugimendu abertzalean ere eragin zuten. Horrek guztiak ETArekin baitan abertzaletasunaren inguruko hausnarketa piztu zuen, eta 1960ko hamarkadatik nazionalismoa eta ezkertiaratasuna uztartzeko saiakera teorikoa egin zuen erakunde horrek. Alabaina, iraganeko doktrinen arrastoek (esentzialismoa, etorkinekiko mesfidantza eta abar) ETArekin sektore batzuetan oraindik eragina izaten jarraitzen zuten; abertzaletasunaren eta korronte ezkertiarren arteko sintesia egitea prozesu konplexua eta kontraesankorra izan zen. Eztabaida horien ondorioz, ETArekin V. (1966-67) eta VI. Biltzarretan (1970) zatiketak gertatu ziren. Korronte obrerista haietatik EMK eta LKI alderdien ernamuinak atera ziren, baina baita ORT, LC, OIC-EKE edo bestelako alderdietako militante iraultzaile ugari ere.

LILURA IRAULTZAILEA: KAPITALISMOARI AURREZ AURRE BEGIRATU ZIOTENEOA

Hasiera batean, 60ko hamarkadaren bukaeran, borrokak sortzea zaila eta nekeza zen. Behar gorriak zeuden arren, ez zen erraza jendea mugiaraztea, beldurrak eta errepresioak pisu gehiegi baitzeukaten. Baina urte gutxiren buruan, ezker iraultzaileak Hego Euskal Herriko oposizio anti-frankistan errotzea lortu zuen, batik bat langile mugimenduan. Bere mili-



tanteek lantoki ugaritan Langile Batzordeak (CCOO) antolatu eta sustatu zituzten, eta pixkanaka mobilizazioak ugaritzen eta zabaltzen joan ziren. Oso antzekoak izanagatik ere, haien artean zatiketa handia zegoen eta lurraldean zehar ezarpen zatitua izan zuten, eskualdez eskualde korronte bat nagusitzen zen eta. Iruñerrian, Tolosaldean eta Erriberako nekazarien artean ORT zen nagusi. EMKK indar handia zeukan Bilboko itsasadarreko Eskuinaldeko lantegietan (Ezkerraldean gutxiengo); Gipuzkoako CCOOen korronte nagusia kontrolatzen zuen; eta Iruñean eta Tuteran presentzia nabarmena zeukan. OIC-EKeren kasuan, Gipuzkoa izan zen erakunde horren indargune estataletako bat (batik bat, Oarsoaldea inguruan), bertan Langile Komiteak (Comités Obreros) erakundearen bidez parte hartzen zuten langile mugimenduan. LCR-LKIk, LCk eta PTEk ere presentzia nabarmena (baina eskualdearen arabera aldakorra) izan zuten, eta baita bestelako alderdi eta elkarte erradikal minoritarioagoek ere. Gasteizen, aldiz, mugimendu erradikalen garapena berantiarra eta autonomoa izan zen, 1976 urtearen hasieran bat-batean lehertu zena⁵. Ipar Euskal Herriari dagokionez, bestalde, ezker erradikal frantziarrak Hegoaldean baino eragin gutxiago izan zuen: Ligue Communiste Révolutionnaire (LCR) trotskistaren eta *Révolution!* sasi-maoistaren presentzia izan zen.

Espainiako lurralde gehienetan ez bezala, ezker erradikaleko alderdiek langileen aldarrikapenekin bat egi-tea lortu zuten eta masa mobilizazio arrakastatsuak gidatu zituzten, PCE erreformistaren ahalmenaren gainetik. Esate baterako, 1974ko abenduaren 11an MCEk, ORTk, eta Gipuzkoa eta Nafarroako Langile Batzordeak (Eskuinaldeko CCOOen, ORTren, MCEren, LCR-ETA VI.ren eta LCren babesarekin batera) greba orokorrerako deialdia egin zuten, CCOOen Koordinadora Orokorraren eta PCEn iritzia-
 aurka. Arrakasta handiko mobilizazioa izan zen, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafa-

rraoko 200.000 bat langile mobilizatu zituelako. Greba horrek Hego Euskal Herrian PCEn eta alderdi iraultzaileen artean zegoen indar korrelazio berezia agerian utzi zuen. PCEn ezkerrera kokatzen ziren alderdiek giharra erakutsi zuten eta Carrilloren alderdiaren gidaritzarik gabeko mobilizazio arrakastatsuak egin zitezkeela argi geratu zen⁶. Ezker abertzaleak, bien bitartean, langile mugimenduan eragiteko ahalmen mugatua zeukan. Adar militarren gehiegizko pisuaren ondorioz, ezker abertzale *zibila* eratu gabe zegoen, eta horrek, sektore sozial zabalagoekin harremana lotzeko zailtasunak sortzen zizkion.

1977ra arte, mobilizazioen joera orokorra gorakorra izan zen: gero eta jendetsuagoak eta arrakastatsuagoak. Gainera, mobilizazioetako aldarrikapenetan elementu gehiago txertatzen hasi ziren, mota askotariko deialdiak nahastent baitziren: borroka fronte bakoitzeko aldarrikapenetatik hasi (auzoko, ikastetxeko edota lantokiko aldarrikapen laboralak), beste lantoki batzuekiko elkartasun lanuzteetatik pasa, eta izaera erabat politiko edo antierrepresiboa zutenetara arte. Aldarrikapen guztiak —hurbilekoak eta konkretuak zirenak zein orokorrak zirenak— batera egiten ziren, dena nahasi egiten baitzen. Ondorioz, lantegietan eten-gabeko aktibitatea zegoen eta orduko militante batzuek esaten duten bezala: «ez zen hilabete bat bera izan soldata oso-osorik kobratu genuenik».

Ezker abertzaleak, bien bitartean, langile mugimenduan eragiteko ahalmen mugatua zeukan. Adar militarren gehiegizko pisuaren ondorioz, ezker abertzale zibila eratu gabe zegoen, eta horrek, sektore sozial zabalagoekin harremana lotzeko zailtasunak sortzen zizkion





Gainera, gizarte sektore zabalen onarpena eta errekonozimendua zeukaten eta militanteek babes hori sentitzen zuten. Baina ez bakarrik langile mugimenduan, beste gizarte mugimenduetan ere borroken dinamizatzaile eta antolatzaile papera jokatu zuten. Auzo mugimenduak, esaterako, langile auzoetako biztanleen beharren inguruko borrokak antolatu zituen, azpiegitura eta bizi-baldintza egokiagoak eskatzeko. Mugimendu feministan, halaber, ezker iraultzaileko militanteek ere oso paper garrantzitsua jokatu zuten, lehendabiziko elkarte feministen sorreran parte aktibo izan baitziren.

Alabaina, mugimendu horietan parte hartzen zuen elementu antolatu ak-

tiboena zen arren, ezker iraultzaileak mobilizazioen ganean zeukan gidaritza eta kontrola eztabaidagarria zen. Izan ere, mobilizazioetako asko oso modu espontaneo eta kontrolatu-gabean gertatzen ziren, masa mugimenduak autonomia handia zeukan eta. Batik bat, eraso errepresiboei eman beharreko erantzunetan, horietan mobilizazioak bat-batekoak eta masiboak izaten baitziren, Gasteizko sarraskiari (1976) edo Amnistiaren Aldeko Astean (1977ko maiatza) gertatutako heriotzei emandako erantzunak bezala. Ezker iraultzaileko alderdiek masa-mugimendu hura antolatzen zuten, baina ez zuten erabat kontrolatzen.

Edonola ere, 1970eko hamarkada er-

dialderako borrokak borborka zeuden, garai hartan giro soziopolitikoa irakiten ari zela baitzirudien. Langile mugimendua oso aktibo zegoen eta klase erakundeek protesta eta mobilizazioak egiteko baliabide eraginkorrak zituzten (klase elkartasuna eta Langile Batzordeak). Horren ondorioz, errepresioa oso gogorra izanagatik ere, aldarrikapenak lortzeko ahalmen handia zeukaten. Urte horietan, gainera, mobilizazio arrakastatsuei esker, lanaren errenta kapitalarenaren gainetik hazi zen; hau da, langileen presioaren ondorioz kapitalisten mozkin tasa jaisten hasi zen⁷. Hainbestekoa zen langile mugimendua- ren ahalmena ezen lantoki batzuetan *errebeldia* eta *insubordinazio* keinuak

Askotan zuzendaritzak langile mugimenduaren eskakizunei men egitea besterik ezin zuen egin. [...] momentu batzuetan enpresarien autoritatea kolokan egon zen eta ordena soziala mehatxupean jarri zen. Ezker iraultzaileko militanteen artean, egoera *aurre-iraultzaile* baten aurrean zeudelako sentsazioa zabaldu zen

(kasik kontrabotere txikiak) egiteko ahalmena zutela, eta horien ondorioz, askotan zuzendaritzak langile mugimenduaren eskakizunei men egitea besterik ezin zuen egin. Garai hartan, ohikoa zen lanaldia etetea biltzar handiak egiteko, eta horietan ehunka langile elkartzen ziren. Behin baino gehiagotan, halaber, poliziak militanteren bat atxilotuz gero, bere lankide guztiak greban jartzen ziren eta enpresariak agintariei atxiloa aske uzteko erregutu behar izaten zieten ekoizpenari berrekiteko. Horren guztiaren ondorioz, momentu batzuetan enpresarien autoritatea kolokan egon zen eta ordena soziala mehatxupean jarri zen. Ezker iraultzaileko militanteen artean, egoera *aurre-iraultzaile* baten aurrean zeudelako sentsazioa zabaldu zen.

ESPAÑOLISMOA DELA ETA

Ezkerreko alderdi gehienek artean alderdikeria eta sektarismoa ohikoa zen eta oso maiz elkarri mokoka aritzen ziren. Eztabaidagai garrantzitsuenetakoa bat nazio auziaren ingurukoa izaten zen. Esparru estataleko alderdi ezker-tiarrak ezker abertzalearen kritiken jomuga izaten ziren, *españolista*, *sukurtsalista* eta *estatalista* izatea leporatuta; ezker abertzalekoei, aldiz, *nazionalista burges txiki*, *chauvinista* edo *etnizista* izatea leporatzen zitzaizkien. Zatiketarik zatiketa, hala ere, egoerak eskatzen zuenean, ekintza batasuna nagusitzen zen eta mobilizazio garrantzitsuetarako mugimendu iraultzaile gehienak elkar hartuta aritzen ziren.

Frankismoaren azken urteetan, na-

zio auziak garrantzi handia izan zuten eta aldarrikapen nazionalak diktaduraren eraispenean paper azpimarragarria bete zuten. Frankismoaren errelato nazionalak eta lurralde antolaketaren ereduak, Espainiako nazio periferikoen sentimendu eta aldarrikapenekin talka egiten zuten. Ondorioz, frankismoaren aurkako borrokan euskal sinboloek (euskarak, ikurrinak, aldarrikapen nazionalak...) konnotazio positibo, demokratiko eta aurrerakoia hartu zuten. Antifrankismoa eta ezkertiaratasuna euskaltzaletasunarekin identifikatu ziren eta oposizioko mugimendu guztiek bereganatu zuten. Identifikazio prozesu horrek, gainera, *Euskal Berpizkunde Kulturalarekin* bat egin zuen (ikastolen sorrera, euskara batua, literatura, Kantagintza Berria...).

Nazio kontzientziaren zabaltze hori, ziur aski, ez zen modu berean gertatu V. eta VI. Biltzarretako eztabaidarik gabe edo ETArek jardunarengatik izan ez balitz. ETak oposizioaren diskurtso orokorra erradikalizatzen eta gogortzen lagundu zuen eta kontzientzia antifrankista eta nazionala zabalduarazi zuen. Independentista izatera pasa ez baziren ere, ezkerreko gainerako erakundeek autodeterminazioaren aldeko aldarria onartu zuten, auzi erretoriko hutsa baino gehiago izan zedin.

Aitzitik, arestian esan bezala, ezker abertzalea ez zen masa mobilizazioetan eragiteko gauza, eta esparru estataleko ezker iraultzaileko alderdiak izan ziren kontzientzia nazionala langile mugimenduan eta oposizio antifrankistatan txertatzeko meritua izan zutenak.

Gainera, ekarpen garrantzitsua egin zuten, euskal sinbolo horien konnotazio positibo eta aurrerakoi hori lurralde erdaldunetan eta langile etorkinen artean baneratzeko lagundu zuten eta.

Alabaina, ezker abertzaleak eta ezker iraultzaile estatalak nazio auziaren inguruko ezberdintasunak zituzten, batik bat lau auzitan: 1) Estatalistek autodeterminazioa defendatu zuten, abertzaleek independentziaren leloa lehenesten zuten bitartean; 2) Antolaketaren ereduari dagokionez, estatualistak Espainiako alderdien euskal adarrak ziren, abertzaleek jarrera «sukurtsalistatzat» zeukatena; 3) Estatalistek Nafarroaren euskalduntasuna erreferendum bidez argitu nahi zuten. Abertzaleentzako, aldiz, Nafarroa Garaia Euskal Herriaren parte banaezina zen, galdeketa bidez zehaztu ezin zitekeena; 4) Azkenik, borroka armatuaren inguruko ezberdintasunak zituzten. Ezker iraultzaile estatalak ETArek indarkeriaren eraginkortasun iraultzailea zailtasun jartzen zuten, masa altxamendu iraultzaile baten aldekoak zirelako eta ez ETArek «terrorismo burges-txiki eta individualistaren» aldekoak.

Hala ere, esan bezala, ezker iraultzaile estatalak modu aktiboan parte hartu zuten aldarrikapen nazionalen eta euskaltzaletasunaren aldeko mobilizazioetan. ETArek korronte *obreristatik* sortu ziren alderdietan nazio auziak beti izan zuten garrantzi handia eta gaiarekiko sentsibiltate berezia izan zuten (ETA VI.etik zetorren LKIn, batik bat). Gainerako alderdietan, mugimendu abertzaleekin harreman zuzenik



Esparru estataleko alderdiak espainolista anatemarekin gutxietsi bazituzten ere, aitortu behar zaie aldarrikapen euskaltzaleak eta nazio kontzientzia zabaltzen lagundu zutela









Mikel Alonso

**Trantsizioan zehar, eta konfrontazio
eredu berriaren aurrean, ezker
abertzaleak mugimendu erradikal eta
hausturazalearen erreferente bilakatzea
lortu zuen, monarkia konstituzional
berriaren aurka modu eraginkorrean
eta gogorrean borrokatzen zen
mugimendu modura agertu baitzen**

izan gabe ere, antzera gertatu zen. ORT izan zen, ziur aski, nazio auziarekiko jarrera uzkurrena izan zuen alderdia; baina bere oinarri soziala —zuzendaritza ez bezala— euskal aldarrikapen nazionalekin oso identifikatuta sentitzen zen. Iparraldean ere, LCRk Frantziako Alderdi Komunista (PCF) jakobinoak baino jarrera positiboagoa izan zuen nazio auziarekiko: autodeterminazioaren aldeko jarrera izan zuen, nazio zapalduen borrokak babestu zituen eta ezker abertzalearekin harreman adeitsuak izan zuen⁸.

Beraz, esparru estataleko alderdiak *españolista* anatemarekin gutxietsi bazituzten ere, aitortu behar zaie aldarrikapen euskaltzaleak eta nazio kontzientzia zabaltzen lagundu zutela. Gainera, alderdietako batzuek euskal jatorria zuten eta Estatu guztia kontuan hartuta, beraien indargunea (hots, militanteen zati mardulenetako bat) Hego Euskal Herrian zegoen. Ezker abertzaleak iraultza soziala eragiteko marko egokiena Euskal Herrikoa zela uste zuen, ezker iraultzaile estatualak, aldiz, Espainia osokoa. Baina auzi taktikoen inguruko eztabaidaz aparte, bi kultura politikoen arteko harremana estua izan zen eta elkarri elikatu zioten.

GAINBEHERA ETA LEKUKO ALDAKETA

Arestian esan dugun bezala, 1960ko hamarkadaren bukaeran eta 1970eko hasieran mugimendu askatzaileek aurrerapauso handia eman zuten eta zenbaitetan burgesiaren eta inperialismoaren agintea kolokan jartzea lortu zuten. Mehatxu horren aurrean burgesiak erreakzio prebentiboa jarri zuen martxan eta, horretarako, 1973ko Petrolioaren Krisiak eragindako beherraldia baliatu zuen. Ondoko urteetan metaketa eredu fordista-keynesianista atzean utzi eta eredu neoliberalak ezarri zen, enpresarien mozkin tasaren berreskurapena eta langile mugimenduen gainbehera ekarri zuena. Krisiaren kostua langileen gain erori zen eta harreman sozial berriek langile mugimenduen porrota ekarri zuten.

Klase borrokaren joera orokorraren aldaketa horrek Euskal Herria trantsizio garai betean harrapatu zuen. Sarri ahazten den arren, gogoan hartu behar da frankismoa klase izaeradun erregimena zela. Diktaduraren sortetik arrazoiak langile mugimenduen bultzada gelditzea eta burgesiaren mozkinak ziurtatzea izan ziren. Baina 70eko hamarkada erdialdean, diktadurak burgesiari erabilgarri izateari utzi zion; langileen presioaren, krisi ekonomikoaren eta erakunde frankisten deslegitimazioaren ondorioz. Orduan, Gobernuak diktaduraren amaiera kontrolatu bat inprobisatu zuen, hitzarmen sozialaren bidez, sistema kapitalistaren onarpena ziurtatuko zuten babes sozial berriak bilatzeko. Enpresarien mozkinak ziurtatuko zituen hazkunde eredu berria behar zen, eta hori ezartzearen truke oposizioari errekonozimendu legala eta parte hartze publikoa eskaini zitzaizkion. Oposizio moderatuak (PSOE, PCE, EAJk...) monarkia konstituzionalaren marko berria ontzat eman zuen.

Horrekin guztiarekin batera klase borrokaren aldi berri bat ireki zen. 68 *Luzearen* txinparta iraultzailea orduan itzali zen, espektatiba iraultzaileen atea itxi zelako. Halaber, langile-klasearen gainbehera hasi zen eta sindikatuek jarrera erasokorra baino, defentsiboa hartu behar izan zuten. Gainera, orduantxe azaleratu ziren gizarte mugimendu berriak (feminismoa, ekologismoa, sexu askapena, bakezaletasuna...) bestelako hizkuntza, helburu eta borroka-ereduekin. Ondorioz, obrerismoak ordura arte gizarte mugimenduetan izan zuen zentraltasuna desitxuratu zen.

Testuinguru berri horretan, esparru estataleko ezker iraultzaileak eraginkor izateari utzi zion eta krisi larria bizi izan zuen. Oso zatituta zegoen kultura politikoa zen eta trantsizioan ez zuen asmatu programa bateratu eta koherente bat aurkezten. Gainera, zenbait momentutan haustura iraultzaile bat gerta zitekeela zirudien arren, gizartearen gehiengoak aukera moderatuen

alde egin zuen. Urte gutxitan, babes sozial handia galdu zuten eta emaitza elektoral apalak lortu zituzten. Bere militante eta jarraitzaile ugari «desengainu» handi bat bezala bizi izan zuten egoera⁹. Joera hori Europako alderdi iraultzaile gehienetan nabaritu zen, eta errebeldia hotsen oihartzunak 80ko hamarkadan barrena entzun baziren ere, mugimendua pixkanaka apaldu zen.

Baina, indar errebelde hura ez zen erabat eta kolpetik desagertu. Hainbat tokitan erresistentzia fokuak geratu ziren, batik bat aldarrikapen nazionalei lotutakoak: Euskal Herrian eta Irlandan izan ziren azpimarragarrienak. Trantsizioan zehar, eta konfrontazio eredu berriaren aurrean, ezker abertzaleak mugimendu erradikal eta haustu-razalearen erreferente bilakatzea lortu zuen, monarkia konstituzional berriaren aurka modu eraginkorrean eta gogorrean borrokatzen zen mugimendu modura agertu baitzen. Ordura arte, ezker iraultzaile estataleko jarraitzaile izandako asko eta asko bereganatzea lortu zuen eta Herri Batasunaren bozkatzailerak izatera pasa ziren. Abertzaletasunak iraultzaile askoren aterpe modura funtzionatu zuen.

Indar berri horren sorrerak ezker iraultzaile estataleko alderdiak ezustean harrapatu zituen eta zenbait momentutan noraezean aritu ziren. Gainera, zenbait akats taktikok kalte larria egin zieten alderdi horietako batzuei. ORTk, esate baterako, emaitza elektoral kaxkarren aurrean itxura moderatua irudikatzeko saiakera egin zuen, hautesleak erakartzeko asmoz, eta horrek 1978ko Espainiako Konstituzioaren aldeko baiezkotza botoa eskatzera eraman zuen. Baina zuzendaritza estatualaren erabaki hori alderdiaren galbidea izan zen, batik bat Euskal Herrian. Bere oinarri sozialak nazio auziarekin eta aldarrikapen antierpresiboekin oso identifikatuta zeuden eta ez zuten erabakia begi onez ikusi.

Gainerako alderdi erradikalek ezin izan zuten HBren eta ezker abertzalearen erakurpen ahalmenaren au-

Ezker iraultzailea klase borrokak frankismoaren hondar urteetan gurean hartu zuen formetako bat izan zen, eta aldi berean, 68 Luzea izenez ezagutzen den olatu iraultzailearen aldaera lokala

rrean erresistitu. PTEren Euskal Herriko adarrak, bere I. eta II. Konferentzia Nazionaletan (1978 eta 1979), independentziaren eta klase borrokaren marko autonomoaren aldarriak bereganatu zituen. PTEk eta ORTk, gainbeherari aurre egiteko, batasun prozesu bat egiteko saiakera egin zuten 1979-1980 inguruan. Baina berehalako porrota izan zen eta bi alderdiak denbora gutxian desagertu ziren. Beren militanteak norabide ezberdinetan barreiatu ziren: zati mardul bat ezker abertzalerantz edo gizarte mugimendu berrietarantz, beste batzuk (ORTko zuzendaritzakoak, esaterako) PSOera eta beste askok politika utzi zuen. EMKk eta LKIk, aldiz, gehi-ago iraun zuten. 1980ko hamarkadan zehar HBren inguruan orbitatu zuten eta gizarte mugimendu berriei esker biziraun ahal izan zuten. Feminismoaren, intsumisioaren edo ekologismoaren sustapenean trebaturiko plataforma bilakatu ziren, baina boterea indarrez hartzeko prest zeuden alderdi leninistak izatetik urruti.

ONDORIOAK

Ezker iraultzailea klase borrokak frankismoaren hondar urteetan gurean hartu zuen formetako bat izan zen, eta aldi berean, 68 Luzea izenez ezagutzen den olatu iraultzailearen aldaera lokala. Akatsak akats eta kontraesanak kontraesan, mugimendu ezkertiar zabal eta aberatsa eratu zuten, langile mugimenduan ongi errotutakoa. Mugimendu hura ez zen antifrankismo hutsa, haien-itzako demokrazia parlamentarioa ez zen helburu bat. Sozialismoa helburu eta klase borroka ardatz zituzten estrategia iraultzaileak diseinatu zituzten eraldaketa sozial sakonak lortzeko asmoz. Mobilizazioen bidez, frankismoa

higatzen ekarpen ordainezina egin zuten eta hainbat borroka sektorialetan garaipen partzial ugari lortu zituzten. 2008ko krisira arte eskubide ezinbestekotzat genituen asko («Ongizate Estatu»), esaterako, orduko borroken emaitza ziren.

Proiektu horrek, ordea, porrot egin zuen. Gaur eguneko ikuspegitik ameskeria dirudien arren, 60ko eta 70eko hamarkaden bueltan gertatu zen hori izan zen iraultza soziala eragiteko azken saiakera serioa, oraingoz behinik behin. Gizartearen zenbait sektoreen begietara aukera hurbil egon zen. Zentzu horretan, egia da elite burguesaren eta «euskal masa mugimendu erradikalar» artean hegemonia soziala eskuratzeko lehia bizia izan zela, eta horrek monarkia konstituzionalaren ezarpena zaildu zuela. 1980ko hamarkadan zehar oraindik Estatuak legitimazio arazo larriak izan zituen Euskal Herrian. Baina egoera ez zen aurre-iraultzaile izatera iritsi, ez behintzat ezker iraultzaileak uste zuen bezala.

Porrota bizi bazuten ere eta belau-naldien arteko etena izan bazen ere, borroka horien guztien eragina gaur egunera arte ailegatu zaigu, gaurko mugimendu sozialetako izaera errebel-dea markatu zuena. Orduko militante asko oraindik gure artean daude, eta azken urteetako pentsionisten mugimenduaren antolatzaile modura orduko hainbat eta hainbat maoista ohi edo trotskista ohi aurki ditzakegu. Hasieran esan bezala, kultura politiko hura oso gogorki kritikatu izan da, nire uste apalean, modu zorrotzegian eta bidegabean. Esperientzia laburra izanagatik ere, gure iragan hurbileko tradizio iraultzaile aberatsa osatu zuen. /



Mikel Alonso



ERREFERENTZIAK

1 Espainiako Estaturako erreferentziako obra:
WHILHELM CASANOVA, Gonzalo: *Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición* (1975-1982), Siglo XXI, Madrid, 2016.

2 Langile-klasearen eraketa prozesua:
PEREZ IBARROLA, Nerea, *Langileria Berri Baten Eraketa. Iruñerria 1956 - 1976*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2017.

3 Garaiko langile mugimenduari buruz: IRIARTE ARESO, Jose Vicente, *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977)*, Departamento de Educación, Cultura, Deporte y Juventud, Iruñea, 1995. IBARRA GÜELL, Pedro Ibarra, *El movimiento obrero en Vizcaya (1967-1977). Ideología, organización y conflictividad*, EHU, 1987.

4 PEREZ IBARROLA, Nerea, *Langileria Berri Baten Eraketa...* 264-267.

5 CARNICERO HERREROS, Carlos, *La ciudad donde nunca pasa nada. Vitoria, 3 de marzo de 1976*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2007. ABASOLO, Jose Antonio, *Vitoria, 3 de marzo: metamorfosis de una ciudad*, Arabako Foru Diputazioa, Gasteiz, 1987.

6 ESCRIBANO RIERA, Daniel: «Las Jornadas De Lucha De Diciembre De 1974 En El País Vasco», Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.): *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 595-608. IRIARTE ARESO, Jose Vicente: «Otoño caliente en Navarra. La huelga general del 11 de diciembre de 1974», *Geronimo de Uztariz*, 14-15 zbk. (1999), 105-121.

7 RODRÍGUEZ LÓPEZ, Emmanuel: *Por qué fracasó la democracia en España. La Transición y el régimen del '78*, Traficantes de Sueños, Madrid, 2015. ETXEZARRETA ZUBIZARRETA, Miren (Koord.): *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*, Icaria, Barcelona, 1991.

8 SALLES, Jean-Paul, *La Ligue communiste révolutionnaire (1968-1981)*, Instrument du Grand Soir ou lieu d'apprentissage, Presses universitaires de Rennes, Rennes, 2015.

9 BEORLEGUI ZARRANZ, David, *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País vasco (1976-1986)*, Postmetropolis Editorial, Madrid, 2017.

Argitaraturik
2021EKO APIRILEAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
SS-01360-2019

Lizentzia



arteka

Trantsizioaren
haustunak

daridad
XIGIMOS
MISION DE LOS
DIDOS Y UNA
TA DEFINITIVA
RA REIVINDICACION

na jartzen eskatzen
tuto 72
noren

